



218. zenbakia

2002-3-26

Goierritarra

Segura

Aste Santua Iparra-Hegoa

Gorka Igartua
aktorea

Txindoki-
Alkartasuna:
ISO 14001

Loinatz
txirrindulari
probaren
75. edizioa



3 ORDAINDU ETA
4 KARRETE ERREBELATU

ZUZENKETAK ARGAZKIZ-ARGAZKI
BERTAKO ETA EGUNEROKO ZERBITZUAK

3+1

FOTOETNE  FUJIFILM

AGROTRESNAK **ALOKAIRUA ETA SALMENTA ZERBITZUA**



STIHL



BASOGINTZA

DENETARIK



BELARRETARAKO



ESKAINITZA



350,90€

462,90€

479,90€

572,90€

TRATORETAN AUKERA ZABALA

Salbatore auzoa

BEASAIN

Tel.: 943 164 103

Faxa: 943 164 736

Gasteiz Etorbidea, 8

ALTSASU

Tel.: 948 562 805

Faxa: 948 564 156

orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxa: (943) 16 08 23

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Pako Zubeldia, Oihana Sarasola, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz, Patxi Telleria eta Aitor Diaz de Espada.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako

Kultura Sailak,

Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta

GOIERRIKO UDALEK

diruz lagundutako
aldizkaria



LIZARRUSTI

IGARTZA



ZUMALAKARREGI

ARDIXARRA



ARTISAUTZA

HERRI MUSEOA

Goierri

descúbrelo por sólo

4€

gatik bakarrik

gure produktu turistikoak bisita itzazu
visita nuestros productos turísticos
con este bono descuento



www.goierri.org



Goiturren bono turistiko berria

4 eurogatik, ezagutu ezazu Goierri

Batez ere goierritarroi bota digu erronka Goiturrek oraingoan: Goierri bertan, etxe ondoan ditugun ondarea eta produktu turistikoak ezagutzea. Horretarako, bono turistiko bereziak prestatu ditu Goiturrek. 4 euoren truke, Lizarrustiko parketxea, Beasaingo Igartza jauregia, Ormaiztegiko Zumalakarregi museoa, Segurako Ardixarra etxea, Zegamako ehungintza artisautzako tailerra eta Zeraingo Herri Museoa bisita daitezke. Bonoa izanda, beharpena izango dute bisitariek. Egutero egongo dira bisitagai lekuok. Bono turistiko hau, nobedadea da Euskal Herrian.

Bonoak, udaletxeetan eta Goierriko alojamentu guztietan eskuragai egongo dira. Goierri bisitari datozen turistek ere eskura izango dituzte bonoak.

Bonoarena hala ere ez da epe laburrean Goiturren ekimen bakarra:

Goierriko bideoa

Apirilaren 12an, Goierriko bideoa aurkeztuko da Idiazabal. Eskualdeko nekazalturismo guztiak biltzen dituen foiltoa ere bai.

Uribe eskualdearekin hitzarmena

Beste ekimen bat ere prestatu du Goiturrek: Bizkaiko Uribe eskualdearekin turismoaren sustapenerako hitzarmena sinatuko dute. Hitzarmen honen ondorioz, Uribe eskualdeko informazio turistiko banatuko du Goierriko Gipuzkoako azoketan, eta alderantziz, Goierriko informazioa Uribe, Bizkaiko azoketan. Uribe eskualdeko 22 udalerritako alkate, zinegotzi eta teknikoek Goierri ezagutzeko aukera izango dute hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

Goierritarra Goierri kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro



Segiren ekimenak

"Eraso faxisten aurka", hainbat ekimen burutu zituen Segi gazte erakundeak, otsailaren 18tik martxoaren 3ra. Iruñan gose greba mugagabea egin zuten Segiko hainbat gaztek eta haiekin bat eginez, Beasainen eta Ordizian ere asteburuko baraualdia egin zen. Beasainen 10 lagunek egin zuten baraualdia eta Ordizian 15ek. Baraualdiari amaiera ematek, 100 lagunek manifestazioa egin zuten Ordizian.

Herria Mugi! taldearen aurkezpena

Martxoaren 6an, Herria Mugi! ekimena aurkeztu zen Ordizian. 1999an sortu zen Herria Mugi!, Euskal Herriko herri mugimendu ezberdinen ordezkariak osatua. Elkarren arteko elkarlana eta elkar ezagutza bultzatzeko sortu zen.

Ikasle Abertzaleak-en greba

'Lege arrotzei intsumisioa, euskal hezkuntza sistema nazionala orain' lemapean, Ikasle Abertzaleak taldeak greba orokorra egin zuen martxoaren 6an. IAK emandako datuen arabera, Goierrin, erantzun zabala izan zuen greba deialdiak: Beasaingo Institutuan % 90ak egin zuen greba; Ordiziako Jakintza Ikastolan, %100; Ordiziako Oianguren Institutuan %90ak; Lazkaoko San Beniton %60ak eta Goierrin, %95ak.

Igartza saria:

V. Literatur sorkuntzako bekaren oinarriak kalean

Beasaingo Udalak, CAF enpresaren babesarekin eta Elkarlanean argitaletxearen laguntzarekin, dagoeneko kaleratu ditu V. Igartza Literatur Sorkuntzako bekaren oinarriak. Euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza ematea du helburu beka honek. Sei mila euroko diru-laguntza izango du bekak.

Idazle berrientzako beka da, 35 urtetik beherakoentzat. Bakarka bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea da bigarren baldintza. Deialdira, narratibako lanak egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.

Proiektuak, uztailaren 1era arte bidal daitezke Beasaingo Udaletxeko Euskara Zerbitzura. Epaimahaia Unai Elorriagak, Jasone Osorok eta Xabier Mendiguren Elizegik osatuko dute. Bekako diru-kopuruaren erdia, izendatu bezain laster, jasoko du irabazleak, eta beste erdia, idazlan amaitua entregatu eta epaimahaikoek onepena emandakoan; lehen erdia jasotzen duenetik urtebetera hain zuzen ere. Epaia, 2002ko irailaren 6a baino lehen emango du jakitera epaimahaiaik.

Tere Irastortza: Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari berria

Tere Irastortza zaldibiarra dugu Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari berria. Andolin Eguzkitzaren lekua hartu zuen Irastortzak, Bilbon, martxoaren 16an.

Iñaki Azurmendi: Urrezko Aizkoran aurrera

Martxoaren 16an jokatu zuen Iñaki Azurmendi arriarandarrak Urrezko Aizkorako hirugarren kanporaketa. Antonio Senosiaini 2 minutu eta 20 segundoko aldea atera zion. Hamar enbor ebaki behar izan zituzten eta Azurmendik hasieratik aurre hartu zuen. Hurrengo kanporaketako Txapartegiren kontra jokatuko du.



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

BEASAIN



Zuberotarrekin bat, auzolanean, 1.000.000 euro lortzea helburu



Zuberoa, 765 km² eta 13.500 biztanle ditu, Maule eta Aurratzeko kantonamenduetako 35 udalerritan banatuak. Hiriburua Maule da.

Ekonomia

Lurralde menditsu honetan, ekonomiaren jardura nagusia abeltzaintza (honen barnean gaztagintza nabarmentzen delarik) eta basogintza izan dira. Mauleren inguruan industria (elikagaiak, zurgintza, oinetakogintza, ehungintza), administrazioa eta merkataritza kokatzen da. Turismoak gero eta garrantzia handiagoa du. Gaur egun, 5.000 inguru lanpostuak, 950 lehen sektorean, 1.950 industrian eta

eraikuntzan eta 2.120 zerbitzuetan banatzen dira.

Populazioa

Populazioak behera egin du oro har. Azken mendeen 10.000 biztanle galdu ditu Zuberoak, horietako 2.000 azken hamarkadan. Laborari-familietak gazte-jendeak Lapurdiko industriaguneetara, Parisera, Biarnora edo Frantziako beste hiri handietara jo du. Bertan gelditutako askok, berriz, Maulera jo dute. Horren ondorioz, herriak hustu egin dira eta elkartu behar izan dute udalerrriak osatzeko. Ezer egiten ez bada, aurreikusita dago 2010. urterako bi mila biztanle galduko direla.

Zuberoak baditu egitasmoak

- Elikagai eta plastiko industria indartzeko inbertsioak finantzatu, lanpostu berriak sortuz.
- Nekazal produktuak komertzializatzeko egitasmoak.
- Artisautza eta sorkuntza multimediar lotutako egitasmoak.
- Gazteak eta emakumeak nekazaritzan aritzeko dirulaguntzak.
- Euskara indartzeko plangintza eta eragileen arteko harremanak bideratu.
- Merkatu ikerketak eta egitasmoen bideragarritasun azterketen finantziak.
- Zuberoaren errealitatea Euskal Herri osoan ezagutzera eman.
- Ekonomian egitasmo berriak bultzatzeko finantza baliabideak bideratu.

'Xiberoa 2010' garapen egitasmoa

Egoera honengatik arduratuta, iaiztik hona, Zuberoako 35 udalerrriak biltzen dituen Herri Elkargoak eskaturik, hainbat eragilek, enpresariok, administrazioak, kultur elkarteak... Zuberoako egoerari buruz hausnarketa egin dute. Emaizta: 'Xiberoa 2010' garapen proposamena.

Helburuak

Helburu nagusia hamar urtetan 600 lanpostu neto sortu, lurraldean bi mila pertsona finkatu ahal izateko. Horretarako, industrian eta artisautzan, zerbitzuetan eta nekazaritzan neurri zehatzak proposatu dira sektore batzuetan lanpostuak mantentzeko eta beste batzuetan lanpostu kopurua gehitzeko. Horretaz gain, jendea probintzian sustraitzeko, lurraldearen erakargarritasuna eta barne kohesioa sendotu beharra ikusten da, bai zerbitzu eta aisiaren aldetik, bai Zuberoaren identitatea azpimarratzearen aldetik.

Dirua biltzeko taldeak osatu dira Goierrian

'Xiberoa 2010' egitasmoa gauzatzeko 1.000.000 euro bildu nahi dira. Diru hori biltzeko, herrietan 'Xiberoa 2010' taldeak sortu dira. Harremanetarako telefono zenbakia: 902 33 88 66.

Udalbiltza

Euskal Herria osatzen duten herrialde eta eskualde guztien artean garapen orekatua eman dadila eta hori lortzeko, euskaldun guztion elkarlana ezinbestekotzat jotzen du Udalbiltzak. "Euskal Herrian antzinatek sustraitua dagoen auzolana nazioen mailara eramatea egokitzat ikusten dugu. Are gehiago, Zuberoaren egoera kezagarria ikusita, Euskal Herrian bere lekua eraikitzen jarraitzeaz, egun Zuberoak berak jasaten duen basamortze prozesu honi aurre egiteko bide zenbaitzuk atxeman ditzakeela iduri zaigu", dio Udalbiltzak.

Euskal Garapen eta Kohesio Fondoa

Euskal Garapen eta Kohesio Fondoa sortu da. "Zuberoaren kasua gaindituko lukeen eta Euskal Herri osoa kontuan hartuko lukeen interbentzio ildo bati ekiteko bide berriak zabaltzen saiatzeari ekin zaio lurraldeen arteko desegituraketa eta desoreka errealitatearen aurrean, ekonomiaren desegituraketa eta kontzentrazio joerei zein Euskal Herriaren zatiketa instituzionalak eragin duen harreman komertzial, ekonomiko, kultural eta sozialen ahultzeari aurre egiten saiatuko den estrategia gorpuzteko premia da erantzun beharrekoa. Errealitate honen aldagai sozioekonomikoan eragiten hasteko sortzen da Euskal Garapen eta Kohesio Fondoa. Izaera instituzional publikoa duen udal erakunde autonomoa da. Bere xedea Euskal Herriko udalen, eragile sozialen eta herritarren arteko lankidetzaren suspertu, tokian tokiko garapena bultzatzeko eta sendotzeko".

Beasaingo Udaleri

Eskutitz honekin Beasaingo Udalaren pasibotasuna salatu nahi dugu, Oriamendi kaleko 32an kokatua dagoen ile-apaindegia aktibitatearen lizentzia berrikustea eskatzeko, zeinak Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak bere xedapenean ezarritako neurri zuzentzaileak ez dituen bete, ez eta ere beste lege xedapenen aurreikuspenak, aktibitate hau kokatua dagoen eraikinetako zenbait bizilagunei lesio larriak sortuz. Aipatu Udalak legeari eta dauden mediku txostenei ez die jaramonik egiten, bortxa larriak sortuz bizilagun bezala ditugun eskubideetan, non horrela jarraitzekotan konpontzea ezinezkoa izango den; guztiz legez kanpokoa eta sostengaezina den egoera.

Gure ordezkari legalak urtebete baino gehiagotik hona Udal Erakundeak, txosten

partzialak, arau-hauste salaketak, berrikusi eta kontrastatzea eskatuz ari dira, zeinak aipatutako ileapaindegia instalakuntza eta aparatuen irregularitasunak sortutako zarata mailak, bibrazioak eta onartutakoak baino usain handiagoak islatzen dituen espezialista teknikoen txostenez lagundurik. Udala bere kompetentziaren arduradun egin dadin eskatzen da, gaur arte erantzun baikorrik jaso gabe gaude aipatu aktibitateari emandako funtzionamenduari eta baimenari eragiten dien irregularitasunei buruz. Egoera honek, kaltetu edo afektatu bezala, jurisdikzio eskudunaren aurrean kontentzioso-administratibo errekurtsioa aurkeztu behar izatearen tesitura zailean jartzen gaitu, udal pasibitatearen aurrean, zeinak arazoaren irtenbidea luzatzen jarraitu besterik ez duen egingo, gure gaitutasunak beharrik gabe lu-

Irakurleentzako oharra

Komunikabide ezberdinetatik, telefonoz, kontu zenbakirik ez emateko esan eta esan ari dira azkenaldian. Bitartean, GOIERRITARRA aldizkaria, posta gastua ordaintzeko, laguntzaile kanpaina egiten hasi zen otsailaren 11n, telefono bidez datuak hartuz. Beraz, norbaitek mesfidantzarik izanez gero, aldizkarian bertan datorren txartela bete eta bidali GOIERRITARRA aldizkariara, deiaren zain egon gabe. Era honetan gainera, GOIERRITARRA aldizkariari ere lana aurreratuko diozue.

Beraz, aurrez eskerrik asko.

GOIERRITARRA aldizkariako Zuzendaritza Batzordea

zaturik, hauek guztiz sendagariak direnean eskuduna duen Administrazioak beraren zuzeneko parte hartzearekin.

Informazio osagarria nahi izanez gero gure interesak defendatzen dituzten abokatuarekin jarri zaitezke harre-

manetan, Gemma Etxabe edo Xabier Ezeizabarrenarekin. Telefono zenbakia: 943429290.

Maite Telleria (Beasain)

GERTU
aholkularitza

TXEkin programarako homologatutako erakundea

txekin Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92

aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 **LEGORRETA**

GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE

Pedro Jose Landagutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk. **BEASAIN**

IBAI ONDO

ARROZTEGIA
instalazio berriak

Altzariak neurritan
Mota guztietako arroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

MUGICA 19

MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.
Autoen salmenta
Mekanika eta elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Nork ez ditu bere etxea eta herria maite?

Gaur egun edozein gazteren ametsa norberarentzat pisu edo txoko bat izatea da. Hala ere, gauza nola dagoen ikusita, loteria tokatzearen antzeko gauza da pisu merke bat topatzea. Honekin eta gainera, estatistikan gaur egungo gazteek 30 urte arte gurasoen etxean gelditzen direla aipatzen da. Zer nahi dute ba!

Eta esango duzu zuk, irakurle agurgarri horrek, zer ari da tipo hau ekologiaren txokoa gazteen arazoetaz hitz egiten? Zera ba, etxebizitza batek, nahiz eta desberdintasun batzuk izan, ingurugiroa zer den ikusteko balio dezake. Ea ba!, ikus dezagun:

Etxebizitza batek 3 gauza nagusi ditu bizitza duin bat egin ahal izateko; espazio fisiko bat gutxieneko zerbitzu batzuekin, hau da, lurra, inguruko airea, eta ura.

Honetaz aparte, guztiok dakigu bizi ahal izateko, etxe bat edukitzearekin ez direla behar guztiak asetzen, hala nola, elikagaiak, arropa, energia....

Behar hauek asetzeko bakoitzak funtzio desberdinak betetzen ditugu, batzuk dendariak, zabor biltzaileak, nekazariak besteren artean... Ondorioz, pertsona guztiak elkarrekin erlazionatzen gara, guztien beharrak modu batera edo bestera asetzen saiatuz. Bakoitzak betetzen duen papera beharrezkoa da beste guztientzat. Nahiz eta pertsona bakoitzak bere txoko, bizi eta mundu partikularra duen, besteekin erlazionatzeko gune bat sortzen du, hala nola gure auzoa, gure herria...



Ingurugiroa ere, deskribatu dudanaren antzeko gauza bat da, urak, lurrak eta atmosferak sortzen dute eskenatokia (Gure etxe eta herria), eta bertan izaki desberdinen artean erlazioak sortzen dira: landare, animalia, mikrobio, gizaki....(etxe handi honetako bizilagunak) Kasu honetan ere, izaki/bizilagun bakoitzak bere istorioa du, baina izaki/bizilagun desberdinen artean erlazioak izanik. Hauen existentzia beharrezkoa da izaki guztientzat, eta erlazio hauetako baten desagertzeak ondorio ezkor ugari ekar ditzake beste guztientzat.

Artikuluaren hasieran, desberdintasunak aipatu dira, baina bada oso berezia den ezberdintasun bat, eta azpimarratu nahi nukeena: Gure pisu - etxebizitza, geurea dela argi ikusten dugu, (gure miloi eta izerdiak kostatu zaizkigulako). Bertan ez zaigu gustatzen, ez zorua, ez iturriko ura, zikina ikustea ez eta etxean usai txarra egotea, besteak beste. Hortaz, hor doa galdera, botatzen erraza baina erantzuten ez hainbeste: Zergatik baloratzen dugu horrenbeste geure pisua eta batere ez geure etxebizitza eta bizilagun den ingurugiroa? Guztiona izateak ez du norberarena denik kentzen! Orduan?

Aitor Diaz de Espada

"Zergatik baloratzen dugu horrenbeste geure pisua eta batere ez geure etxebizitza eta bizilagun den ingurugiroa?"

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

LIBURUA

'El hombre y la madera'. Ignacio Abella. Integral editoriala. 4. Edizioa 1998. Urtean argitaratua. Idazlea egun Asturiasen bizi da, nahiz eta bere lehenengo urteak Urbasa aldean igaro zituen. Liburu honetan zuhaitzen ezagutzatik hasi eta zuraren lantze sistema eta teknika desberdinak errepasatzen ditu.

JAKIN BEHARREKOA

SATORRAK kalte ugariaren arduraduntzat baditugu ere, bere onurak ere sortzen dituzte. Animalitxo hauek lur azpian zuloak egiterakoan lurra aireztatzen dute, azpiko lur kapa gaineratzen baitute nolabaiteko labore lana eginaz. Bestalde gizonen laborantza lanetan kaltegarri diren larba eta intsektuak ere jaten ditu. Dena kaltea ere ez da ezta?

"LURZORUA SAKRATUA DA. Lurzoruak bizia ematen dio jendeari, eta bizia ematen duena sakratua da". Ashanti tribua (Ghana)

PINUEN PROZESIONARIA-REN

aurka DIMILIN botika erabili ohi izan da. Produktu honek intsektuei, metamorfosia egiten dutenean, kitina (azal gogorraren osagai funtsezkoa) egitea eragozten diete eta prozesu horretan hil egiten dira. Oso eraginkorra da prozesionariarentzat, baina berdin jasaten dute pinudietan bizi diren beste intsektu guztiek. Intsektuak ez dira kaltetu bakarrak, beste animalia batzuk ere kitina beharrezkoa dute, erreketako karra-marroak, adibidez.



Patxi Telleria

Memorian gordetako pasarteak



Nikolas
Mendizabal
zaldibiarra.

Duela 25 urte erailak izan ziren Guardia Zibilaren kontrol batean Sebastian Goikoetxea eta Nikolas Mendizabal. Operazio horretan, Fran Aldanondo atxilotu eta espetxeratua izan zen. Amnistiarekin kalera irten zen baina 1979ko urriaren 17an hil zuten Izaskunen. Hona hemen orduko kronika modukoa.

1997ko martxoaren 8an, Nikolas Mendizabal zaldibiarra eta Sebastian Goikoetxea ibartarra, Zumarragatik behera zetozela, Ormaiztegi baino lehenago, Itsaso-Alegi pareko errepidearen bihurgunean, kotxe barruan bertan tiroz hil zituzten.

Prantzisko Aldanondo, Ondarrukoa, beste bion kidea, belaunpean tiro balaz zauritua izan ondoren, Donostiako Antiguako koartelera eraman zuten, eta han jipoitua izan ondoren, Martuteneko espetxean sartu, handik abenduaren 20an bidali zuten arte (azkeneko preso politikoa izan zelarik).

Baina politika egoera lehenean, aldaketarik gabe, berdin jarraitzen zuela ikustean, berak bere bide beretik jarraitzea pentsatu zuen, biderik onena hori irudituta.

Ibarrako Izaskungo mendia hartu zuen gordeleku. Hango Maitineguena eta Maitinebekoa baserriak hutsik zeuden. Hauetara erretiratzeko zen gauean, ilunabarrean Tolosara jaitsi ohi zen tarteka. Baina bere arerioak ez zeuden nonbait lo eta zaindu egiten zuten. Gau batean, polizia isilik joan, baserria baino lehenago gelditu, eta oinez joanez, Aldanondo zegoen etxea, Maitineguene, kanpotik inguru guztia hartu zuten. Orduan lanoberrak sekulako argi eta burrunban jarrita abiatu ziren. Aldanondok, hura ikusita, bere baitako 'emen dituk' esan eta dudamudan egon gabe, leihotik salto egitea erabaki zuen. Baina saltatu zuenean, tamalez, polizi artera erori zen. Lurreratze kolpe hartan makurtu zenean, fusilarekin bizkarrean joz altxarazi zuten; korrika alde egiteko esan eta ihes zihoanean, atzetik tiro eginez hil zuten. Handik ehun metrora erori zen zerraldo, 1979ko urriaren 17an.

Urtebetera omenaldi bat egin zitzaion, Maitineguene baserrian salto egin zeneko leihotik ondoan. Jende asko bildu zen. Egin zen han mitinik eta bertso hauek bota ziren:

Egun on! bildu zeraten denoi,
Nagusi eta gaztedi,
Aldanondoren amets-giroan
erri au osatu bedi,
egin zituen alegin denak
biurtuz pakez da egi,
bide ortatik alegindu zan
bere biotz eta begi,
zure bizia emana duzu
askatu zedin Euskadi.

Aldanondo or aurkitzen zan
Baserri-geone Maitinen,
Leiotik salto egin zuen
Arriskuz aurkitzen zanen,
Lurreratzean polizik alto
Arten e erdi etzanen,
Fusilarekin bizkarren joaz
Golpen altxatu etzanen,
Korrika bialdu eta atzetik
Tiroz hil zuten atzenen.

Zure anima zeru urdinez
Or ibiliko da pilpil,
Bizia kendu zizuten arren
Erri ez dago isil,
Zuri egin garbi aztertuz
Ez gera arkitzen trankil,
Zure izena gure artean
Euskadin indartsu dabil,
Gure artetik jua zinan baina
Guretzat ez etzinaden il.

Euskalerrian zurekin denok
Aurkitzen gera zorretan,
Gerta zitzaizun ezbeurrari
Gure eskeintza loretan,
Zure odolan irudiari
lore gorri koloretan,
lore txurien azalpenakin
garbiaren ooretan,
berde esperentzan zeu ikurrina
izan zerade horretan.

Zuri bizia kendu zizuten
Izaskungo goi-mendian,
Indarrarekin alkar arturik
Eta armaren mendian,
A ze nolako berri tristeak
Euskalerriko sendian!,
Ekintza hauek gertatu dira
Ogeigarrengo mendian,
Oiek ez baitakite oraindik
Euskal arauak zein dian.

Mendiko lan au bukatutzeko
Oraintxe didate esan,
Arratsaldekoa esplikatzeko
Jende denak jakin dezan,
Aldanondoren eriotz-mina
Gogoan behar degula izan,
Arratsaldean biltzeko denak
Emen goizkoen gisan,
'Cafe Frontoian', lauek aldera,
alkartu gaiten Tolosan.

Baserritik ehun bat metrora, hilik
gelditu zen lekuan, lore-sorta
handi-bikain bat zeukan presta-
turik. Eta aurreko bertsoen segidan,
eta jende guztia Aldanondo
hil zuten lekuan lore-eskaintza
egiten ari ziren bitartean, bertso
hauek kantatu zituen.

Goizeko saioa honela bukatu
zen, mitin eta bertso. Esanda be-
zala, arratsaldeko saioa
16:00etan izan zen, Frontoian,
bertan jende asko bildu zelarik.
Mitin, kantu (Lepoan hartu ta se-
gi aurrera) eta bertso-saio handi
batekin osatu zen festaldia. Hiru
bertsolari hauek kantatu zuten:
Mikel Mendizabal, Patxi Telleria
eta Millan Telleria.

pentsatu, egin eta izan

Guk iraultzaz

INDEPENDENTZIA



Gazte Topagunea

Elorrión martxoak 29-30-31-1

Eman izena
Herriko tabernetan



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

Behi Esnea

**DASTATU BENETAKO
BEHI ESNEAREN
ZAPOREA**

ETXETIK GERTU DUZU SALGAI



Ohizko sukaldeko benetako
zaporea lortzeko aproposena

Zaporeduna



Behi Esnea produktoreak



Agerre baserria
Tel. 943-72 40 36
Urretxu. Gipuzkoa
B.Z. 95.4.00005/SS Nº.A



Iztueta Elkarte

943-88 41 36 / 943-88 48 60
Lazkao. Lazkao, Gipuzkoa
B.Z. 95.4.00003/SS Nº.A



Agote Etxeberri baserria
Au/Garin 17. Beasain
Gipuzkoa



hilean

euro

1

Goierritarra
etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefona: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz ☐
eta hala izaten jarraitu nahi dut

Ez naiz Goierritarraren harpide ☐
eta hemendik aurrera izan nahi dut

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)
kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik

Gorka Igartua, Ezkio-ltsasoko aktorea:

"Aktore munduak, zenbat eta gehiago murgildu, orduan eta gehiago erakartzen nau"

Gorka Igartua. Goenkale eta Hasiberriak telesailletako 'Guti'. 21 urte. Ezkio-ltsasokoa. Hasiberriak saioa bukatu berria da eta irailera arte etena izango du. Itxura denez, formatu berriarekin pantailaratuko da irailean. "Behartutako atsedena" honetan harrapatu dugu Gorka.



Kasualitatez sartu zen Gorka Igartua Goenkale. 17 urte zituen orduan. "Eskolan antzerki pixka bat egin nintzen eta gustatzen zitzaidan. Baina ez neukan planteatuta ofizioa bezala hartzea. Koadrilako batzuk antzerkia egiten zuten eta Goenkaleko kasting batera aurkeztu ziren eta nik lagundu egin nien. Asmorik gabe joan nintzen, baina kastinga egin egin nuen. Eta deitu egin zidaten", adierazi digu Gorka Igartuak.

Goenkale bi urte pasatxo egin zituen. Gero Hasiberriak saioan jarraitu zuen, urte eta erdiz. Madril alderako pausoa ere eman du tarte honetan: Tele 5 kateko 'Hospital Central' telesaila bi kapitulutan aterako baita ezkiotarra.

Irailetik aurrera berriz ere Hasiberriak saioan jarraitzea espero du. "Beste planteamendu batekin etorriko omen da Hasiberriak: ordubete inguruko saioa izango da, istorioak hasi eta bukatu, egun berean egingo direnak", zehaztu du. Orain arte, egunean kapitulu bat grabatzen zuten. Denbora zehatza izaten zuten sekuentzia bat grabatzeko,

"akatsak gehiago joaten ziren. Beraz, kalitatean irabaziko duela pentsatzen dut formatu berrian".

Telebistan lanean hasi zenean, Urretxu antzerki taldean hasi zen. Ezkiotarrak zehaztu digunez, "telebistakoa serioagoa da. Ondo egin behar da, ahalik eta azkarren. Lan serioa da. Antzerkian, gehiago gozatzen dut. Antzerkian ikasten da lana, beste paper batzuk interpretatuz". Aktore lana ez du bokazio, hobby baizik. Baia aitortu digunez, "zenbat eta gehiago murgildu, aktore munduak, gero eta gehiago erakartzen nau".

Goenkale-Hasiberriak

Gutik eta Gorkak antzekotasunik ba ote dute? "Goenkale eta Hasiberriak fikzioa dira eta garbi dago hango gauzarik ez zaidala gertatzen. Baina beti dago norberaren ikutua. Hain naturala izan behar denez, norbere gauzak beti azaldu behar dira. Desberdinak dira, baina espresioak... berdinak dira. Izaera aldetik, antzekotasunen bat eduki de-

zake: asteburuetan parranda egitea gustatzen zait, jendearekin hitz egitea... Zentzu horretan antzekotasunik eduki dezake", nabarmendu du Gorkak.

Goenkale edo Hasiberriak saioan, non hobeto galdetu diogu. "Bietan oso ondo. Hasiberriak-en denok gazteak gara eta Goenkale ez. Tratua agian, gertuagoa da gazteekin. Hasiberriak ezberdina da. Oso ondo konpontzen gara elkarrekin eta oso giro ona daukagu. Hori garrantzitsua da, giro on hori nabaritu egiten baita".

Kamara aurreko lehenengo egunak gogoratu ditu Gorkak: "hasieran ez nuen hain serio hartu. Ez nion ematen zeukan adinako garrantzirik. Denborarekin ikasten joaten zara, hobetu egin nahi duzu, serioago hartu nahi izaten da. Orain serioago hartzen dut eta gehiago kritikitzen naiz. Hasieran gehiago kostatzen zitzaidan gidoiak ikastea. Ez naiz izan sekula gidoia oso ondo ikastekoa".

Zailena, "zenbait eszena,

pixka bat konprometituak, egitea da. Natural egitea mugatzen zaituen zerbait egoten da. Aurretik hitz egiten dugu eta ondo konpontzen gara, eta egin behar da eta egiten dugu. Azkenean, txorakeria bat da, baina... Aurrenekoetan kosta egiten da", dio Gorkak. Dena den, "garrantzitsuen gidoia ondo ikastea da eta gero errekursoak edukiz gero, aterako zara. Egunero-egunero ikasi behar da eta niri gehiena hori kostatzen zait, konstantzia".

Etorkizuna

Aktore bezala, etorkizuna nola ikusten duen galdetzean zera erantzun digu: "antzerkia egiten jarraitu nahi dut, hor ikasten baita eta zerbait ateratzen bada heldu. Bitartean zerbait ikasten jarraitu, beste gauza seguru bat eduki, eta zerbait ateratzen bada aurrera. Nahikoa mundu zaila da. Suerte asko eta konstantzia edukiz gero ondo bizi-ko zara, baina gero eta konpetentzia gehiago dago. Horretara bakarrik ez nintzateke dedikatuko. Ondo ateratzen bada ondo, ez nuke utziko, gustatzen zait eta".

Euskal aktoreak Madril aldera joatea prest daude azkenaldian. Gorkak egin du tartetxo bat, baina ez da hain eroso sentitzen. "Nik arazo txiki bat daukat: azentoa. Agian nire paranoia da. Gaztelaraz hitz egiten arraro samar ikusten naiz, ez naiz eroso sentitzen. Besteek ez dakit zer esango duten baina niretzat ez naiz natural sentitzen eta pentsatzen dut nabaritutako dela. Agian ohitura falta da".

Beasaingo Txindoki-Alkartasuna Institutuak ISO 14001, ingurumen kudeaketa ziurtagiria jaso du

Urtarrilaren 21ean, Beasaingo Txindoki-Institutuak ISO 14001 ziurtagiria lortu zuen. Ingurumen kudeaketaren alorreko ziurtagiria da, Aenorrek ematen duena. Estatu Espainiarrean ISO 14001 ziurtagiria jaso duen lehenengo ikastetxea da. Martxoaren 13an jaso zuten Txindoki-Alkartasuna Institutukoek ziurtagiria.

Josu Agirre zuzendariak ISO 14001 ziurtagiria lortzeko ahalegina nondik nora datorren azaldu du: "Aspaldikoa da gure institutuan ingurumenarekiko ardura, agian kokapenak berak eragiten duen zerbait da, Txindoki mendia aurrez aurre izatean. Heziketa zentroa izanik, gainera, gure curriculum ezberdinetan, zehar-lerro gisa bada ere, kezka sortzen duen gaia da. Betidanik ahalegin du gara gure ikasleek irakasgai ezberdinen edukiaz gain, bestelako jarrera eta balioak ere barneratu eta bultzatzen. Azkenik, bada garrantzia duen beste arrazoi bat ere: Lanbide Heziketa berria. 1997-98 ikasturtean 'Ingurumen Kudeaketa', goi-mailako heziketa zikloa jarri zuen abian institutuak, ezarpen aurreratua eginaz. Lanbide Heziketa berriaren ezaugarrietako bat enpresatan egiten diren praktikak dira. Berehala konturatu ginen gure ikasleek zer eskatuko zitzaion enpresetatik: beste gaitasun batzuk izatea garrantzitsua



Aenor, Ihobe, EAEko Hezkuntza saileko, Beasaingo Udaleko eta Txindoki-Alkartasuna Institutuko ordezkariak, aurkezpen ekitaldian.

bazen ere, une honetan enpresa asko eta asko burubeltarri ari dira ingurumen kudeaketa sistemak ezartzen; beraz, premiazkoena sistema horien ezagutza zen. Hau horrela izanik, gure ikasleek gertu-gertutik ezagutu zezaten, institutuan bertan kudeaketa sistema bat ezartzeko ahalegina egitea erabaki genuen".

"Gaurko jarduna, biharko etorkizuna" lema harturik, ingurumen kudeaketa sistema zehatza eta ingurumenaren zainketarekin bat datorren antolakuntza mantentzea erabaki zuen Txindoki-Alkartasuna Institutuak. "Txindoki-Alkartasuna Institutuak bereziki zainduko du pertsonen osasunaren, natur baliabideen eta inguruaren babesare-

kin duen oro. Horrela, zerbitzuen kalitatea betetzea ahal izango da, ingurumen legegia errespetatuko da eta ikastetxearen eremuan egiten diren jarduerak onargarriak izango dira ingurumen ikuspegitik", zehaztu du Agirrek.

Helburuak eta neurriak

Ikastetxea osatzen dutenen partaidetza, irakasgaiartekotasuna, formazioa, sentsibilizazioa eta komunikazioa; paper, ur, gasoleo, elektrizitate, produktu kimiko... kontsumoak; hondakinen kudeaketa; isurkinak; igorketak; zoru kutsadura; eta kanpo zarata arloak aztertu zituzten Txindoki-Alkartasuna Institutuan. Ingurumen Kalitatearen Eskuliburua sortu dute, helburuak, erreferentziak, aplika-

zioak eta dokumentazio osagarriak biltzen dira bertan. Datu guztiak, noski, txukun bilduko dituzte.

"Jarduerak aztertuta, ingurumenearan eragin handiena zerk duen ikusi, ebaluatu eta helmugak eta jomugak finkatu genituen. 14 helburu finkatu dira. Ondoren, helburu horiek lortzeko zein eginkizun egin beharko diren zehaztu dira", azpimarratu du Ana Albisu irakasle eta ingurumen arduradunak. Adibide praktiko bat jarri du Ana Albisuk, helburu eta neurri motak azaltzeko: "helburu bat, laborategiko hondakin kimiko arriskutsuak %10ean murriztea da. Hori lortzeko, ahalik eta disoluzio kopuru txikiena prestatzea eta beste aplikazioen baterako erabilgarria izatea da helburua".

Jon Jauregi, Beasaingo alkatea, Txindoki-Alkartasuna Institutuaren Ingurumen Kudeaketa Sistemaren aurkezpen ekitaldian izan zen. Zorionak eman beharrean, eskerrik asko eman zien. "Beasainen hezkuntza hobea dauka esan dezakegu".

Luz Esperantza Aenorreko ordezkariak, berriz, Txindoki-Alkartasuna Institutua eredu dela azpimarratu zuen. "Institutu batek inpakto zuzen gutxi dauka ingurumenean eta ahalegin hau eredu da. Heziketa da institutu baten helburua eta ingurumena heziketaren parte da. ISO 14001 ziurtagiria lortzen duen lehenengo erakunde publikoa da Txindoki-Alkartasuna Institutua".

'Gaurko jarduna, biharko etorkizuna' lema harturik, ingurumen kudeaketa sistema zehatza eta ingurumenaren zainketarekin bat datorren antolakuntza mantentzea erabaki zuten

Aste Santuko prozesioak Seguran

Gipuzkoan, Aste Santuko prozesioak ez dira asko ospatzen, baina horietako bat, ospetsuena, Seguran ospatzen da. Urtarriletik hona 30 bat segurar prestaketa lanean aritu dira eta dagoeneko dena prest daukate, Aste Santurako. 305 herritarrek parte hartuko dute; 3 urtetik 70era bitarteko segurararak.

Orain 30 bat urtera arte, herri guztietan egiten zen Aste Santuko prozesioa, baina Batikanoko II. Kontzilioan prozesioak ez ospatzea erabaki zen. Herri gehienek utzi egin zioten prozesioa egiteari, Seguran, ordea, jarraitzea erabaki zuten. "Segurarren gogo sutsuagatik, herritarren borondate onarengatik, fedegatik eta lan egiteko prest zegoen jendea zegoelako jarraitu zuen", diote antolatzaileek. Seguran prozesioa noiztik ospatzen ez dakigu, baina hala ere badago 1635eko dokumentu bat, Segurako prozesioa aspaldikoa zela azpimarratuz.



Martxoak 28, Ostegun Santua:

17:00etan: Jaunaren Afariko Meza.

18:15ean: Prozesioa.

Martxoak 29, Ostiral Santua:

08:00etan: Gurutz Bidea, Santa Engrazitik komentura.

16:30ean: Jaunaren nekaldiaren ospakizuna, Gurutzetik jaitea.

18:15ean: Prozesioa.

Martxoak 30, Larunbat Santua:

20:00etan: komentuan.

Martxoak 31, Pazko Eguna:

12:00etan: meza.

305 herritar

Urtarriletik Aste Santura arte, 30 bat segurar aritzen dira prestatze lanean. Prozesioa bukatzen denean, datu biltzea egiten da, puskatu, hondatu edo berritu behar diren gauzak zehaztuz. Urtarrilean, or-

duan, zerrendak errepasatu eta egin beharreko konponketa, erosketa... lanean hasten dira antolatzaileak. Otsailera-ko soldadu erromatarrekin eta San Migelek hasten dira entsaioak. Aurtengo San Migel, Eneko Montes Arrondo izango da. San Migelek, dantza

entsaiatzen du. Soldadu erromatarrek tronpeta eta danborra jotzen. Soldadu erromatarrak aurkitzeko izaten dute antolatzaileek arazorik handiena. Izan ere, gizon handiak eta zabalak izan behar baitira jantziak ondo betetzeko. Kapitainak, 1,92 metro neurtzen ditu eta gainerakoak, 1,80 ingurukoak dira.

Guztira, 305 herritarrek hartuko dute parte: 65 santu eramale, 50 nazareno, 13 erromatar soldadu, 24 penitente, monagiloak... Horiek paso bizidunak dira.

Bestalde, prozesioan 10 paso bizigabek parte hartzen dute: San Joan, Baratzeko Otoitza, Etsaiak, Pilato, Ximon Zirenearra, Gurutzea, Piedadea, Ama Birjina (Ostegunean), Sepulkroa eta Ama Doloretakoa (Ostiralean).

Prozesioa girotzeko, txistulariak, abesbatza eta Legazpiko musika banda ere izaten dira.

Bisitari ugari

Segurako prozesioak jende ugari erakartzen du Segurara. Jendetza izugarria etortzen da urtero, tradizioak erakarrita. Seguran, guztia prest dute.



SEGURA

SEGURAKO UDALAK Aste Santuko ospakizun ezberdinetan parte hartzera gonbidatzen zaituzte, gogoraraziz **"Baserriko argia"**

Juan Gorritiren erakusketa ikusgai dagoela Ardixarren apirilaren 14ra arte.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Elorri Kultur Elkarteak Iparraldekoekin antolatuta

VII. Iparra-Hegoa astea Seguran, apirilaren 8tik 14ra

Ipar Euskal Herria gehiago ezagutzeko, ulertzeko, gerturatzeko eta batzeko helburuarekin antolatzen du Segurako Elorri Kultur elkarteak Iparra-Hegoa astea. Aurten VII. ekitaldia izango da. Aurreko urteetan Nafarroa Beherea eta Zuberoa izan ziren protagonista, eta aurten, Lapurdi izango da.

Segurako Elorri Kultur Elkarteak Iparraldeko hainbat lagunekin batera antolatutako astea da Iparra-Hegoa. Segurako Udalak, Segurako tabernek, Kutxak, Euskadiko Kutxak eta txakolindegiek ere beraien laguntza eman dute astearen antolakuntzarako.

Herriko plazan, azkeneko urteetako ohiturarekin jarraituz, karpa erraldoia jarriko dute antolatzailerik, eguraldiak ekintzak baldintza ez ditzan. Bertan taberna ere jarriko da.



Iparraldeko Kuxkuxtu txaranga, beti bezala, bazterrak girotzen.

Egitaraua zehaztua dute dagoeneko Elorri Kultur Elkarteak. Apirilaren 8tik 14a bitartean, zer ikusi, zer entzun, zer dastatu eta zertaz gozatua izango da Seguran.

Apirilak 8, astelehena:

- 'Lapurdiren aurkezpena', orokorrean eta arrantza bereziki. Hizlaria: Mikel Epalza. 19:30ean, Kultur etxean.

Apirilak 9, asteartea:

- 'Turismo eta bere eraginak Lapurdin', etxebizitzak. Hizlariak: Peio Olariaga eta Peio Etxeberria. 19:30ean, Kultur etxean.

Apirilak 10, asteazkena:

- 'Abiadura handiko trenaren proiektua', eraginak Lapurdin eta Gipuzkoan. Hizlariak: Jeronimo Prieto lapurtarra eta Mikel Albarez gipuzkoarra.

Apirilak 11, osteguna:

- Bertso saioa Kultur etxean, 19:30ean, Amets Arzallus eta Sustrai Kolina. Gaijartzailea, Eneko Bidegain.
- Bertso afaria Elorri Elkarteak, Amets Arzallus, Sustrai Kolina eta Segurako bertsolariak. 21:00etan.

Apirilak 12, ostirala: haurrei eskainitako eguna

- Uztaritzeko Ikastolako haurrak Seguran egunpasa.
- 15:30ean: Herri Eskolako eta Uztaritzeko haurrak kantari. Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak. Buruhandiak eta txokolate jana.
- 19:30ean: 'Herri minorizatuak Europan', Euskal Herria eta Kataluña. Kultur etxean. Hizlariak: Koldo Gorostiaga eta Miquel Mayol europarlamentariak.
- 20:30ean: Poteo herrikoia. Kuxkuxtu txarangarekin.



Jaietan ere, euskal preso eta iheslariak gure artean izanen dira. Elorripetik besarkada iraultzaile bat guztiei eta ondo pasa aurtengo jaietan.

☎ 943 80 10 02 **SEGURA**



KENDU S. Coop. Ltda.

**Ebaketa tresnetan
Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan**

**Industrialdea, z/g
SEGURA**

☎ 943 80 13 40
Faxa: 943 80 19 05

● **23:00etan:** Anjel Duhalde, plazako karpan.

Apirilak 13, larunbata:

● **09:00etan:** IV. Margo sari-keta, herrian zehar.

● **11:00etan:** Haurrentzako tailerra, txapito barruan.

● **16:00etan:** Lapurdi eta Seguraren arteko 'derbya', pilotan eta futbitoan.

● **18:00etan:** Sokatiraldia, emakumezkoen bi talde hoberenak eta gizonezkoenak, ere bi talde hoberenak.

● **Ondoren:** Euskal Selektzioaren aldeko ekitaldia eta horretan nabarmendu direnei omenaldia.

● **19:00etan:** Lapurdiko antxoaren erreak, Lapurdiko Txopinondo sagardo dastatzea, Nafarroa Behereko Irulegiko ardo dastatzea, eta Segurako taloak.

● **Iluntzean:** Kuxkuxtu txaranga giroa alaitzen.

● **Gauean:** Eztanda taldearekin, kontzertua eta parranda.

Larunbatean eta igandean, Toulousseko okzitaniako musika taldea ibiltari arituko da herrian.



Iparralde eta Hegoaldeko harremanen sinboloa den gerizondoa. Bertako ekitaldia igandean, eguerdiko 2etan burutuko da.

Apirilak 14, igandea:

● **10:00etan:** Kriseilu txistulariak eta trikitilariak kalejiran.

● **Goizean zehar:** Uztaritze-ko txaranga.

● **11:00etan:** Artisauak eta baserriko produktuen azoka herriko plazan. Sukaldaritza lehiaketa: gisatua. Astokarroa haurrak paseatzeko.

● **11:30etan:** 'Euskal ezteiak', idi gurdia, arreo, dantzariak, dultzaineroak, trikitixa, txistulariak, segizioa...

● **12:00etan:** Txakolin dastatzea herriko plazan.

● **13:00etan:** 'Euskal Ezteien' amaiera eta Iraultza dantza taldea.

● **14:00etan:** Gerizondoko ekitaldia: bertso, dantza eta hitzaldi laburra.

● **14:30ean:** Bazkari herrikoia. Sukaldaritza sari banaketa. Txarangak lagunduta, kantu saio amaigabea. Bazkari txartelak Elorripe tabernan daude salgai.

● **17:30ean:** Patxi Perez eta bere taldea.

● **19:00etan:** Iparralde-Hegoaren amaiera, mutxiko dantza-ekin.

Jende aurreko

IV. margo sari-keta

Apirilaren 13an jokatu da jende aurreko IV. margo sari-keta. Gaia: Segurako edozein irudi edo txoko. Goizeko 9etan, herriko plazara azaldu beharko dira margolariak. Norberak eraman beharko du materiala. Sariak: 1.ari 300 euro, 2.ari 210 euro eta 3.ari 120 euro. Aipamen bereziarentzat, 60 euro. Pintura lanak, astebetez, Kultur etxean egongo dira ikusgai. Ondoren, herriko tabernetan ere jarriko dira. eta erosteko aukera ere izango da.

Erakusketa

Elorripe tabernan, aurreko urteetako Iparralde-Hegoa ekitaldietako argazki erakusketa egongo da ikusgai, Aste Santuaren ondorenetik apirilaren 14ra bitartean.

Errifak

Iparralde-Hegoa astearren gastuei aurre egiteko errifak atera ditu Elorri Kultur Elkartek. Euskal Selektzio-eko ekipaje osoa, mendiko ekipaje osoa eta asteburu bat nekazaritza eta zozketatuko dira.



F.M. 89.2

**EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN**

Autowag, s.a.

☎ 943 888 254 943 888 266 Faxes: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km




BEASAIN



● Pintxo hotz eta beroak

● Ogiltartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierrri, 12
ORDIZIA



Gazte kultur astea, Aste Santu bueltan

Zegamako Gazte Herexak antolatuturik, Aste Santu ondorenera, "Gazte kultur astea" antolatu du, besteak beste ekin-tza nagusienak honako hauek izango dira:

Apirilak 2: 19:30etan Diapositiba Emanaldia Kultur Etxean: Gaia 'Alpamayo: Andeen bihotza'.

Apirilak 3: 19:30etan: "Drogen erabilpena eta bere ondorioak" gaiari buruz hitzaldia Kultur Etxean, Askagintza taldearen eskutik.

Apirilak 4: 19:30etan: "Itoitz, bost urtez borrokan" bideo

emanaldia Kultur Etxean.

Apirilak 5: bertso poteoa 19:30etan hasita.

Apirilak 6: Goizeko 10etan herri-eskolako gunean: Goierriko gazte-taldeen arteko futbito txapelketa eta mahai jokoa. Arratsaldeko 4etan Graffiti erakusketa herriko plazan.

Hobeto bizitzeko psikologia

Gai hau oinarritzat harturik hitzaldia izango dugu Udaltxean datorren apirilaren 10ean, iluntzeko 19:30etan.

Aste Santuan turismo bulegoa zabalik

Iaz hasita ekintzak izandako harrera ona medio, aurtenera Zegamako Udalak Goiturren laguntzarekin, bai Gipuzkoa barneko turismoarentzat eta baita kanpotik etorriko den turistentzat ere Udaltxeko sarreran Turismo bulego bat ipiniko du, bertatik Zegaman dauden Ehungintza Tailerrera, San Martin Parrokira nahiz San Bartolome Ermitara ere bisita gidatuak egingo dira. Bestalde, Goierri eskualdeari buruzko informazio zabala eskainiko zaie bertaratuei. Esan, aurtenera, Zegamako Udalak sustaturik, turistei herriko oroigarriren bat eskaini asmoz, Zegamako bi poster desberdin argitaratu dituela eta hauek postu honetan salgai izango dira, edozein herritarrek ere eskuratu dezake noski.



Santa Kruz froga apirilaren 13an

Elkartu Nahi Txirrindulari Elkartek urtero antolatzen duen froga hau, aurtenera XVIII.

Froga, apirilaren 13rako pres-tatu du, bertan Kadeteen 1go eta 2. urtekoak parte hartuko dute.

Edurne Albizu

PSIKOLOGI KLINIKOA

AGI Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto AURRE ZITA
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

☎ 943 887 221
☎ 610 020 041



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

ARAMAKO TABERNA

berriro zabalik!

Menuak

Asteburu etako menuak

Karta

☎ 943 888 953

Aramako plaza ARAMA



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Ludotekak urtebete

Urtebete igaro du dagoeneko Altzagan jarri zen ludoteka zerbitzuak.

Herrian eskolarik ez izateak eta bertako haurrak Ordizia eta Beasaingo ikastetxe desberdinetara joateak udalari eta gurasoei proiektu hau aurrera eramateko erabakia hartu arazi zien.

Udaletxean kokaturik zegoen etxebizitza bat egokitu zen, frontoi ondoan eraiki berria zen plaza txiki batean jolaslokiak jarri eta aipaturiko lokalari sarrera egin zitzaion.

2 urtetik hasi eta 10 urte bitarteko haurrak biltzen dira

eta zerbitzu hau erabat dohaizatik da.

Ludoteka honetan jostailuak, liburu eta ipuinak, telebista eta bideoa, ordenagailu bat, eta abar jarri dira.

Zaintza eta ekintza desberdinak aurrera eramateko enpresa batekin hitzarmen bat sinatua du udalak. Gaur egun zerbitzua astean behin ematen da, larunbata goizetan 10-13etara. Opor garaietarako zerbitzu hau moldatu nahi da.

Kirola, jolasak eta abar lantzen dira, igeritokira eta beste txango batzuk antolatzen dira, baina benetako hel-



Eguberrietan abesten atera ondoren egindako meriendan ateratako argazkia.

burua herriko adin desberdinetako haurrak elkarren berri izan eta lagun talde bat osatzeara da.

Lehen urtea igaro ondoren egindako balorapena baiko-rra da. Hala eta guztiz ere, al-

de guztiek parte hartu eta ideia berriak landuz proiektu hau erakargarria izaten jarraitzeko denen lana ezinbestekoa da.

Pako Zubeldia

Sukaldaritza ikastaroa

Udaleko Kultur Batzordeak Sukaldaritza Ikastaroa antolatzen du legorretarrentzat Kuxa Gizarte Ekintza eta Bilkoin K.K.E.-ren laguntzarekin.

Ikastaroa Sonia Tapiak (Fronton Jatetxea) emana izango da etabi talde osatuko dira, bata astelehenetan arratsaldeko 4,30etatik 6,30etara eta bestea astelehenetan gaueko 7etatik 9etara. Ikastaro bakoitzaren iraupen osoa 14 ordukoa izango da eta apirilaren 8an hasiko da Bilkoin

Elkartean. Ikastaroan zehar Euskal Sukaldaritza Berriaren oinarriak eta bilakaera landuko da. Sukaldaritza askoz ere garbiago bat ikusiko dugu, ia koiperik gabe, zapore eta usain benetako eta garbiak nagusitzen direnean. Metodo eta teknologia berriak aurkeztuko ditugu, hala nola, sifoia, termomixia, silpata, e.a. Gure bazkalkideak gustora edukitzeko modu erraz eta azkar bat ikusiko dugu. Ikastaroa amaitu ondoren idatzizko dokumentazioa banatuko da.

Egonaldiak familia euskaldunetan

Programa honen bidez, euskara ikasten edo hobetu nahian, nahiz bertako euskalkia ezagutzeko asmotan dabilen gazteari familia euskaldun batean hilabete bat edo bi pasatzeko aukera emango zaio (uztailean, abuztuan edo irailean) eta, aldi berean, herri euskaldunen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko parada ere emango zaio. Familia bakoitzak erabakitzen du neska ala mutila nahi duen eta zenbat hilabetez hartu nahi duen parte.

Familiak bete beharreko baldintzak: egonaldiak hilabeteak izango dira gutxienez, eta hilabete bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izango da. Ikasleak 18 eta 45 urte bitartekoak izango dira. Egonaldia eskaintzen den hilabetean etxean, gutxienez, lau lagunek bizi beharko dute. Ikaslearentzat logela bat libre edukitzea etxean.

Familiak, horren truke 492,83 euro jasoko du hilabete bakoitzeko. Izena emateko epea: apirilaren 8a. Informazio gehiago: udaletxean edo Haben Tel.: 943 022621.

Ikastaroak plaza mugatuak izango ditu (8-15 ikasle) eta izenak emandako orden zorrotzean beteko dira. Matrikularen kostua 20 eurokoa izango da eta Udal Bulegoe-

tan izena ematerakoan ordainduak izan behar dute. Izena emateko epea martxoaren 27an amaituko da Udal Bulegoetan.

Apirilaren 7tik 25era

Dionisio Amundarainen omenezko kulturaldia

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkao Udalak, Kutxa eta Euskadiko Kulturaren babesean, Dionisio Amundarainen omenezko kulturaldia antolatu dute apirilaren 7tik 25era. Egitaraua duzue jarraian:

Apirilak 7, igandea:

Eguerdian: Lazkao Txiki gogoan: meza, lore eskaintza, dantzariak, bertsoak eta salda, Lazkao Txiki zelaian.

Apirilak 10, asteazkena:

21:00etan: J. Izueta eta A. Izagirrerren 'Pangea, bidaia kontinenteen ondora' ikus-entzunezkoa, Maizpiden.

Apirilak 11, osteguna:

21:00etan: Anjel Cuerdoren 'Korea eta Txina, amets baten bidea' ikus-entzunezkoa, Maizpiden.

Apirilak 14, igandea:

11:00etan: Dionisio Amundarainen omenezko meza nagusia. Donostia Ereski Abesbatzaren kontzertua, Benediktarron komentuan.

14:00etan: Bazkaria, Goierriko bertsolariak eta trikitilariak alaiturik, Maizpiden.



Apirilak 15, astelehena:

Goizean: 'Antzarren XII. bertso-papere' banaketa, Ikastolan.

13:00etan: 'Eske hau superguaya da! XXI. mendeko gazte hizkera?'. Kike Amorrizen eskutik, hitzaldia, Ikastolako Batxilergo ikasleentzat. Ikastolan.

Apirilak 16, asteartea:

16:30etan: Haurrentzat jolasak, plazan.

Apirilak 17, asteazkena:

21:00etan: Hika antzerki taldearen 'Arrautza delikatuak', Maizpiden.

Etxe berriak

Lazkaon zaharkiturik dauden eraikinak bota eta berriak egi-teko asmoa dago azken hilabete hauetan. Eta bota behar dituzten erakikinen artean, etxe ugari daude besteak beste. Dagoeneko Batzoki etxea zegoeneko bota dute azken aste honetan eta Elosegiko 20 eta 28 zenbakiak ere birrintzen hasiak dira dagoeneko. Bai batean eta baita bestean ere, bi toki hauetan etxe berriak eraikitze asmoa du Lazkao udalak. Batzokia zegoen toki horretan lau pisuko eraikinak egingo dituzte, 32 etxebizitzentzako tokiarekin. Elosegiko kalean, berriz, hiru pisuko etxeak eraiki behar dira, bertan 30 familiarentzako tokia izango delarik. Bi tokietan etxe azpian autontzako garajeak eta merkatal gunek izango dira.

Oihana Sarasola

Apirilak 18-21:

Ataungo zine-aretoan, Liam filma euskaraz.

Apirilak 19, ostirala:

14:30etan: Bat-bateko bertso-saioa eta antzerkia, Ikastolan.

20:00etan: 'San Adrian eta inguruen kondaira'. Xabier Azurmendi zenaren liburua-
ren berragitalpena, Udaletxe-
ko Areto nagusian.

Apirilak 20, larunbata:

22:00etan: Burlatako Larratz Dantzari-taldearen 'Hamaika dantzetako lurra' dantza ikus-
kizuna, Kiroldegian.

Apirilak 22, astelehena:

19:00etan: Pello Zabalen 'Esaera zaharrak' hitzaldia, Kultur etxean.

Apirilak 23, asteartea:

11:00etan: Liburuaren Nazioarteko eguna dela eta, Gerriko liburudendak liburuak kalera aterako ditu eta %10eko deskontuarekin salduko ditu.

21:00etan: Antzerkia: Elena Irureta eta Aizpea Goenagaren 'Sketcha-ak'.

Apirilak 24, asteazkena:

15:00etan: Haurrentzat eta euskara ikasleentzat txotxongiloak: Enkarni Genuaren 'Itsasmines'. Maizpiden.

Apirilak 25, osteguna:

17:00etan: San Prudentziotako eranskailuaren aurkezpena, Gerriko Liburudendaren aurreko aldean.

Erakusketa

Apirilaren 8tik 22ra, Kultur etxean, 'Dionisio Amundarain, artzantzatik komentura eta komentutik euskararen unibertsitatera' erakusketa ikusgai izango da.

Ordutegia: astegunetan, 18:00etatik 20:00etara; larunbatetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; igandetan, 12:00etatik 14:00etara.



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea

943 882442 - 943 888901

Faxa: 943 888901

LAZKAO

ZUZENKI

Abokatuak

Enpresen asesoria eta gestioa

AHOLKULARITZA

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net

e txekin

www.txekin.net

Legorreta

Beasain

Orendain

Etxebizitzaren salmenta:

Elosegi, 16 LAZKAO



Nekazaritza biologikoaren ikastaroa

Zeraingo Oa kultur elkarteak eta Biolur elkarteak, nekazaritza biologikoaren inguruan ikastaro bat antolatu dute. Ikastaroak bost eguneko iraupena izango du eta ondorengo gaiak jorratuko dira: 1. Baratzagintza; 2. Frutagintza; 3. Aberegintza; 4. Nekazaritza biologikoaren araudiak eta 5. egunean nekazaritza biologikoa lantzen duen baserri batera bisita egingo da.

Ikastaroa apirilaren 11, 18, 25 eta maiatzaren 2an, lehenengo lau gaiak emango dira eta ondoren baserrira bisita izango da. Ikastaroaren kos-

tua 6 euro izango da eta kultur etxean emango da arratsaldeko 6etatik 9etara.

Izen ematea Udaletxean goizeko 11etatik 14:30etara 943 801 724 telefonoan eta Mandioa dendan, goizez 10:30etatik 13:30etara eta arratsaldez 15:30etatik 18:30etara 943 801 505 telefonoan.

Bolateak

Martxoaren 3an jokatu zen Endika Alustiza Memoriala bola lehiaketako garailea Jesus Lasa izan zen, berak jaso zuen saria, Jabier Arrieta es-



Zuhaitz eguna

Lehengo larunbatean, hilak 16, zuhaitz eguna ospatu zen. Herriko haurrak beraien gurasoak lagunduta bost zuhaitz landatu zituzten, bolaleku ondoko zelaian bi eta pelotaleku atzean beste hiruak.

kulturgileak harriz landutako eskultura bat zen, bigarren sailkatua Luis Aizpeolea zeraindarra izan zen, honek jaso zuen saria Tomas Ugartemendia eskulturgileak egurrez eta marmolez eginiko lana izan zen: beste sei saritu ere izan ziren hauek kopa, urdaiazpiko, herriko produktuez osatutako saskia, sagardo edo txakolin sortak jaso zituzten.

Goierriko bola txapelketako, Zerainen egin zen tiraldian garaile Imanol Agirre izan zen, eta bigarren Joakin Izagirre.

Erregularitateko txapelketan, Zerainen jokatu zen tiraldian Jose A. Ugarteburuk, irabazi zuen, eta bigarren Jose Luis Agirre.

Mari Flor Mendizabal



Herri sarrera berritzeko proiektua

Udalak esku artean du Beasaindik etorrita, herri sarrera goitik behera eraldatuko duen proiektua. Arkitektoek egingako proposamena aztertu eta dagozkion aldagetak eginda, 3 hilabeteren buruan hasiko litezke lanak.

Proiektuak bi zati ditu. Jeronimorenetik Futbol zelaira bitartekoa lehena, eta handik herri gunera artekoa bestea. Bigarren zatian izango dira aldageta ikusgarrienak. Futbol zelaia baino beheraxeago, errotonda bat eraikiko da, autoek abiadura murriztu deza-

ten. Errepidea estutu egingo da, eta espaloia bi aldetan egingo da. 2 metroko zabale-
ra, gun batzuetan gehiago, izango dute espaloiek. Horietako batek, ertzak baxuagoak izango ditu, autoek aparkatu ahal izateko.

Jeronimorenetik Futbol zelaira bitartean egin beharreko lanak zehaztu gabe daude. Espaloia ez dagoen aldean, berria egin ala ez aztertzen ari da Udala. Leku horretan, bidea estutu eta arbolak landatzea da beste aukera.

KZ gunea Pilar Enean

Apirilaren 26an, ostirala, zabalduko dute Pilar Eneako ganbaran Idiazabalgo Konekta Zaitzez gunea. Eusko Jaurlaritzak bultzatzen ari den izen bereko kanpainaren helburuetako bat, internet ahalik eta herri gehienetara zabaltzea da. Horretarako sortu ditu KZ izeneko guneak. Idiazabalgoak 12 ordenagailu eta arduradun bat izango ditu.

Udalak, ezustean jaso du Jaurlaritzaren proposamena. Herriak lekua, Pilar Eneako ganbara, jarri du, gainerakoa Jaurlaritzak egingo du. Lehen datuen arabera, 12 ordenagailuetatik 8, ikastaroak egiteko erabiliko dira. Gainerako 4ak, 18 urtez gorako edozein herritarrek erabili ahal izango ditu.

KZ gunea goiz eta arratsalde egongo da zabalik, astelehenetik ostiralera. Oraingoz bi urterako konpromisoa hartu du Jaurlaritzak.

Xabier Urteaga

Herri sarrerako urbanizazio lanen helburu nagusia, zati horretan dauden azpiegiturak berritzea da. Uraren hodiak aldatuko dira eta gasarenak ere sartuko dira. Jeronimoreneraino iritsiko da Idia-

zabalgo gas bidea. Helburua, orain Gas Euskadik Amporaino ekarrita duen azpiegiturarekin bat egitea da. Udalaren esanetan, Gas Euskadik hartu du lotura hori egiteko konpromisoa.

Apirilaren 6tik 14ra Kultura loretan

Udaberriarekin batera kulturari egingo dio ongietorria Gabiriak. Emanaldi eta ikuskizun ugariko egitaraua prestatu du Udaleko kultura batzordeak aurtengorako ere, eta apirilaren 6tik 14ra izango da zer ikusia nahi duen ororentzat. Hona egunez eguneko eskaintza:

Apirilak 6, larunbata

III. Pilota Topaketaren finalak hiru mailatan, arratsaldeko 5etan pilotalekuan.

Gauean XXXI. Bertsolari Gazteen Sariketa Osinalde elkartearen. Afaria 9etan izango da, eta saioa ondoren.

Apirilak 7, igandea

"Garalderen Requiem-a" antzerki lana, Azpeitiko Lakrikun taldeak taularatua, elizako antzokian, arratsaldeko 6etan.

Ondoren argazki lehiaketari dagozkion sariak banatuko dira.

Apirilak 8, astelehena

"Diagnosi probak: eskanerra, ekografia, plakak, e.a." gaitzat hartuta hitzaldia, Pake Galdosen eskutik. Kultur etxean, arratsaldeko 5etan.

Apirilak 9, asteartea

Goierriko landa garapenerako programaren aurkezpena eta hitzaldia. Xehetasunak Goimeneko Jose Manuel Zubizarreta teknikariak eskainiko ditu. Kultur etxean, arratsaldeko 7etan.

Apirilak 10, asteazkena

"Kontu-kontari, kanta-kantari" ikuskizuna haurrentzat, Doroteo Zobaranez. Kultur etxean, arratsaldeko 5,30etan.

Apirilak 11, osteguna

Diapositibak: "Munduari itzulita 17 urtetan belauntzian eta familian", espedizioko Santiago Gonzalezek aurkeztuta. Kultur etxean, arratsaldeko 7,30etan.

Apirilak 12, ostirala

Mendiko filmak: "Mongolia, estepako taupadak" muntaia Jose Ramon Agirre "Marrron"-en eskutik. Kultur etxean, iluntzeko 8etan.

Apirilak 13, larunbata

"Kaixo zer moduz! Lapurketa arraroa" herriko eskolaumeen antzerki emanaldia. Elizako antzokian, arratsaldeko 5etan.

Apirilak 14, igandea

Goruntz dantza taldearen saioa eguerdiko mezaren ondoren.

"Txindata" eskolako ikasleen musika emankizuna. Antzokian, arratsaldeko 5etan.

Honetaz gain aipatu argazki lehiaketara aurkeztu diren lanak erakusgai jarriko direla kultur etxean aste guztian zehar. Argazkilariei gogoratu oraindik ez dela amaitu parte hartzeko epea, apirilaren 4ra arte dago argazkiak udaletxera eramateko modua.

Labur-labur

● **Mendi irteera** antolatu du Osinalde elkarteak datorren apirilaren 21erako, Lizarragatik Urbasara. Autobusez joan nahi duenak dei beza apirilaren 12a baino lehen 943 88 63 55 telefonora (Blanka).

● **Aberri Eguna** ospatuko da Euskal Herrian igande honetan, martxoaren 31. Gurean ere ekitaldi berezia egingo da dantzari, bertsolari eta udal agintarien partehartzearekin. Eguerdian izango da, plazan.



● Hilaren 16ko **mus lehiaketak** honako postuak utzi zituen: 1. Iñaki Maiz-Iñaki Oiarbide; 2. Oier Oiarbide-Aimar Maiz; 3. Juanito Esnaola-Dominguez; 4. Iñaki eta Iker Etchezarreta anaiak.

Aztiriko bertso-saioa

Joan den martxoaren 9an Aztiri-bat elkartearen zuten zita sei bertsolari gaztek. Afalosteko saioa maila bikainekoa suertatu zen, soziedadea bete zuten entzuleen gozamenarako. Aztiriko sari honek Osinaldekorako balio duenez puntuazio onena lortu zuten Iñigo Izagirre eta Estitxu Eizagirre sailkatuta geratu ziren. Bestalde, martxoaren 16an Ordiziako Argi-berri elkartearen jokatu zen bigarren jardunaldian Etxahun Lekue eta Iker Zubeldia pasa ziren aurrerako. Idiazabalgo Axari saritik aterako dira sei korako beste bi bertsolariak.



Oroigarria Pepe eta Nikolasi

Gabonetan kantu-eskeko talde batek erabili zuen "Goazen goazen" abesti zaharra berreskuratzen egindako lanagatik esker onezko oroigarria egin zitzaion Pepe Artzelus eta Nikolas Alustizari. Pepek doinuaren musika paperean finkatu zuen eta Nikolasek letra nahiz kanta moldea zehaztu, jakintza zahar bat betiko galtzen utzi gabe.

Venezuelan bolatan

Beste sei eibartarrekin batera, Antonio Agirre herritarra eta Luis Aizpeolea zeraindarra Venezuelen dira martxoaren 22tik. Bertan, Hirutxirlo bola modalitatean (3 birla iladan, 9ren orde, eta 2 kg. inguruko bola 9 kg. ingurukoaren orde). Herri arteko I. Hirutxirlo bola torneoan parte hartuko dute. Bola norgehiagokak Caracas eta Piñaagon jokatu-ko dira martxoaren 25, 26 eta 27an.

Atariak eta balkoiak dotoretzeko lehiaketa

Igande honetan burutu den lore eta landare azokaren antolaketaren inguruan sortutako ideia da lore eta landareez apainduriko atari eta balkoien lehiaketa. Helburua, herriaren itxura pixkanaka hobetzea da eta ideiarene bultzatzai-leak udala eta azokaren antolaketan ibili diren herritarrek izan dira. Lehiaketak bi atal izango ditu, bata balkoiarena eta bestea atariarena. Herri-ko etxe guztiak sartuko dira lehiaketan. Gaiak jakituna den epaimahaiak San Joan jaietan jakitera emango dituzte erabakiak. Baloratuko diren gaiak, landareak eta honen inguruko materialen erabilera alde batetik eta etxearen itxura eta ingurura egokitzea bestetik. Sariak: Atarietan, lehenari 150 euro eta bigarrenari 100 euro. Balkoietan, lehenari 150 euro eta bigarrenari 100 euro.

Herriko balkoi eta atariak dotoretzea da lehiaketaren helburua.



Labur-labur

- **Eskulan ikastaroa.** Martxoaren 14an hasi ziren Iñaxi Urreagaren zuzendaritzapean.
- **Eskualdeko ibilaldi neurtua.** Martxoaren 10ean burutu zen eskolarteko martxan 450 gaztek eta 300 helduk parte hartu zuten.
- **Odol ematea.** Segurako odol emaileen elkarteak dei egin du apirilaren 13ko odol emanaldirako. Osasun etxean, 17:00etatik aurrera.
- **Pintura erakusketa Elorripen.** Kontxa Gorospe margolari donostiarraren lanak ikusgai eta salgai daude Aste Santua pasa arte. Segurari buruzko koadroak ere tartean daude. Ondoren, Iparra-Hegoako argazkiak jarriko dira ikusgai.
- **2002ko aurrekontuak onartuak.** Martxoaren 14ko osoko bilkuran, oposizioak (EA-EAJ) aurkeztutako aurrekontuak onartu ziren eta ez alkatetzarenak (Batasuna).
- **Frontenis txapelketako finala.** Duela hilabete hasi zen txapelketaren finala eta 3. eta 4. postua martxoaren 23an jokatu-ko dira, arratsaldeko 4etan Baratze pilotalekuan. 13tik 16 urte bitarteko 8 bikotek parte hartu dute.
- **Bola.** Goierriko txapelketako martxoaren 16ko Zeraingo saioa Imanol Agirrek irabazi zuen (48 birla) eta 2. Joakin Izagirrek egin zuen (47 birla).
- **Aste Santuko informazioa** 11. orrialdean dago eta Iparra-Hegoa astearena 12-13. orrialdeetan.

Zapato gauetarako autobusak

Zapato gauetan, Beasain nahiz Ordiziara joan eta etorri egiteko autobus zerbitzua martxan da martxoaren 9tik. Geltokiak ohiko lekuetan.

Irteerak

22:35
0:05
2:10

Itzulerak

23:25-23:30
1:30-1:35
3:00-3:05
4:15-4:20

Joseba Telleria



Brixka, puntu, tute eta mus txapelketako bikote irabazleak.

Atsedeneko finalak


Martxoaren 18an jokatu ziren Atsedeneko jubilatuen elkarte brixka, puntu, tute eta mus txapelketaren finalak. Brixkan, Bittori Telleriak eta Joakina Alustizak, Patxi Imaz eta Patxi Garaialderi irabazi zieten. Puntuaren Satur Arizkorretak eta Gregorio Artolak, Patxi Imaz eta Patxi Garaialde gaingitu zituzten. Tutean Patxi Imaz eta Patxi Garaialdek irabazi zuten eta 2. Eulio Albisu eta Ximon Garaialdek egin zuten. Musean, lehenengo Patxi Imaz eta Patxi Garaialde eta 2. Joxe Urbizu eta Sebastian Garaialde geratu ziren. Aipatu, Patxi Garaialdek Jose Palaciosen orde jokatu zuela finalean.

Iraupen luzeko I. Mendi ibilaldia

Aitzgorri Mendizale Elkartek, iraupen luzeko I. mendi bira antolatu du ekainaren 2rako. 53 kilometroko ibilbidea izango da eta 12 bat orduko iraupena izango du. Beasaindik irten eta Aizkorriara joan-etorria. Ibilbidearen nondik-norakoak grafikoan ikus ditzakezue.

Oraindik ere prestaketa lanetan ari dira eta eguna gertu-

ratu ahala informazio zehatzagoa zabalduko dutela adierazi digute. Birtartean, ahalik eta bazkide eta adiskide gehien jakinaren gainean jartzea nahi dute jendea animatu dadin eta prestatzeko denbora ere izan dezaten. Oso bira polita dela adierazi dute.



Informazio zehatzagoa nahi duenak Benito Aiestaran koordinatzailearekin harremanetan jar daiteke.

Telefonoak: 943880505 (etxekoa) - 943805030 (laneakoa). **Fax-a:** 943805245
E-mail: baiestaran@orkli.es

Nekane Altuna

Loinatz jaiak zehazten doaz

Beasaingo jaietarako hilabete eta erdi falta da eta dagoeneko batzordea osatu eta lehen bilerak ere eginak dituzte herriko elkarteek eta baita erabaki batzuk hartu ere. Horietako bat danborradari dagoak da. Dolareatik irtengo da gaueko 10,30etan eta CAF-eko kaperaraino joango da. Beste urteetan bezala elkarteek ez dute kantinerarik atera beharrik izango. Bareak, Murumendi, Loinatz, Alfíl, Aitz-Zorrotz, Aizkorri, Usurbe eta Beti-Bizi, ordena honetan irtengo dira elkarteak. Karroza egitea Beti-Bizi elkarteari suertatu zaio aurtun. Megafonia elektrikoa erabiliko da.

Mozorro egunean, berriz, ez da desfilerik egingo.

Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Udaleko Kultur Batzordeak lehiaketa antolatu du 2002ko Loinatz-Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko. Oinarriek diotenez, edozeinek har dezake parte lehiaketa honetan eta edozein kolore edo eratako lanak onartuko dira. Lanen neurriak berriz, 45 X 65 zm. edo tamaina proportzionalekoa izango da. Hori bai, lehiaketako gaia, Beasaingo Loinatz-Jaiak izango da eta lanetan, 'Beasain, 2002ko Loinatz jaiak Maiatzaren 10etik 19ra' testua idatzirik agertu beharko da. Lanak apirilaren 5a baino lehen aurkeztu beharko dira Udaletxeko Hiritarren Harrera Bulegoan. Saria 306,50 Eurokoa izango da.

III. Igartza literatur sorkuntzako beka saritutako lanaren aurkezpena

Fernando Morzilloren 'Ortzadarra sutan' proiektua izan zen saritua iaz, eta orain liburua taxutu ondoren, martxoaren 22an egin zen lan honen aurkezpen ekitaldia Beasaingo Udaletxeko Batzar Aretoan.

V. Igartza literatur sorkuntzako bekaren oinarriak kalean

Idazle berrientzako beka da eta proiektuak uztailaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira. Oinarriak 4. orrian dituzue.

Santiago Bidea bulegoa

Gipuzkoako Santiago Bidelagunen Elkartek urte batzuk daramatza dagoeneko ibilbide historiko hau zaintzen, bai seinaleztapena argi eta txukun mantentzen eta bai bidea bera itxuratzen premia dagoenean. Esperimentu hori besteen zerbitzura jartzea dute helburuetako bat Elkarteko ki-deek. Elkarte honek bulego bat zuen Donostian erromes joan nahi zuten laguntza eta argibideak eskaintzeko. Iaz, Beasainen ere laguntza hori eskuratzeko modua izan zen, jende ugari bertaratu zen gainera eta aurtun ere bulego hau irekita izango da. Ostegunetan eskainiko du zerbitzu hau 19:00etatik 20:30etara Igartzako Belen Ermitan. Santiago Bidea egiteko informazioa emango da aipaturiko lekuan eta gainera, gaiari buruzko hainbat argitalpen eskuratu ditzake bertaratzen denak.

Odol ateraldia

Odol Emaileen Ordezkaritzak jakinarazten du, gaur, martxoak 26 egingo dela odol ateratzea Urbi-etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emaleez gainera, berriren bat animatzen bada, bertara azal dadila.



HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak guztioi!

jantzi
galaz
zure
bainugelak



HARRIA GRESAK

**Diseinuan beti
aintzindari**

*Bisita gaitzazu eta ezagutu
bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxa: 943 16 19 75

Zelaeta, 1 BEASAIN



AZKEN ETXEBIZITZAK

Eragilea:

ARIN ERAIKUNTZAK S.L.

Informazioa eta Salmenta:


943- 49-38-73

Kalitatea

Diseinua

Paregabeko Ingurua

**ETXEBIZITZA ADOSATUAK
(SEGURAN)**



arquimedia

Peri berezietan aurrena: Artzain eguna

Ohiko periaz gain, urtean zehar dozena erdi peri berezi egiteko apustua egin zuen Udalak orain urte gutxi. Bada, 2002. urteari dagokionez, apirilaren 3an izango da lehen peri berezia, artzaintzari loturikoa hain zuzen ere.

Iaz ez bezala, nafarrerria kontuak alde batera utzita, era guztietako erakustaldiak izango dira, transhumantzia barne. Aipatu asteazkenean ohiko postuak izango dira Garagartza Plazan. Gazta salmentako saltokiak, Goierriko artisautza produktuak, trikitalariak, dultzaineroak eta abarrek ere izango dira egun berezi honi jai giroa eman as-



moz. Goizeko 9etan aharri eta ardien erakusketa-lehiaketa izango da Enparantza Nagusian (obra lanak geldirik izango dira Aste Santuan),

ondoren gazta nola egiten den erakutsiko digute artzainek eta 11k aldean artaldeak pasako dira garai batean bezala herriko kaleetan barna. Hauek iragan ostean Idiazabal gaztaren denboraldi berriaren aurkezpen ofiziala egingo da udaletxeko Batzar Aretoan. Aurtengoan Gonzalo Antónnek ebakiko du gazta.

Eguerdiko 12etan ile-mozte erakusketa izango da eta tripa zorriak aldendu asmoz, herriko elkarteek prestatutako ardi eta arkumea dastatzeko aukera izango da. Goiza amaitzeko, lehiaketetako irabazleei garaikurrak banatuko zaizkie.

Euskararen kale neurketa

Azaroan egindako kale neurketen emaitzek zera dioskue, Ordizian %67ak gaztelaniaz izaten dituela harremanak kalean eta %33ak euskaraz. Adinka ikusiz gero ondorio nagusia zera litzateke haur eta gazteek euskara dutela nagusi beraien arteko harremanak gauzatzekoan baina heldu eta zaharrek kontrako joera dutela, hau da, gaztelania erabiltzekoa. Haur baten presentziak erabat baldintzatzen du helduaren euskararen erabilera, haur bat tartearen denean erabiliaz eta honek ez denean gaztelaniara jotzen. Azken 13 urteotako datuak kontuan hartuz euskarak gero eta presentzia handiagoa duela kalean ondorioztatu daiteke.

Aitor Calvillo

Barandiaran-Cavallero nagusi

Finalean Imaz eta Zubeldiak osatutako bikotea 3-1eko emaitzaz mendean hartu ondoren, Ander Barandiaran eta Pepe Caballero izan dira XXIII. Elkartetako Mus Txapelketako irabazleak. Herriko 8 elkartetako 16 bikote aritu dira bi asteetan zehar ligaska moduan mus partidak jokatuaz eta azkenik finala Mendizaleak Elkarteko Barandiaran eta Caballero eta Boxing elkarteko Zubeldia eta Imazek jokatu dute joaneko martxoaren 15ean. Argi Berri elkarteari egokitu zaizkio antolaketa lanak eta honenbestez Azari elkarteari dagokio txanda hurrengoan. Bi bikoteak kontuan hartuz puntu gehien eskuratu duen elkartea Boxing izan da.

Giro polita Argi Berrin

Etxahun Lekue larrabetzuarra eta Iker Zubeldia beasaindarra izango dira apirilaren 6an Gabirian jokatu den Osinalde Sarioko finalean arituko diren 6 bertsolarietatik bi. Argi Berri Elkartean jokatuak kanporaketan eskuratu zuten horretarako txartela, giro politean ospatutako bertso saioan hain zuzen. Gaijartzaileek emandako lanak nahiko txukun bete zituzten denek ere (Iker Zubeldia, Egoitz Zelaia, Jon Martin, Iñaki Apalategi, Ene-ritz Zabaleta eta Etxahun Lekue) eta azkenik epaimahaikoaren arabera Zubeldia eta Lekue onenak. Bertaratu zirenek ere bozketan egin zuten V. Argi Berri saria norentzat izango zen erabakitzeke. Boto gehien jaso zituen bertsolaria Iker Zubeldia izan zen eta ordainean Goierriko Bertso Eskolako garaikurra jaso zuen.

Bigarren fasea jokoa

XXIII. Lagunarteko Futbol Txapelketan parte hartzen ari diren 12 taldeek badakite bigarren fasean zein multzotan arituko diren. Launako hiru multzotan aritu dira orain artean taldeok eta hemendik aurrera "D" multzoa Urbitarte Sagardotegia, Badago, Tximista Sagardotegia, Reaggy Boy's, Irrintzi eta Bustunmirak osatuko dute eta "E" multzoa, berriz, Usunbilla, Ferro, E.R. Matxain, Vicuña Sport, Pluying eta Wiskas taldeek. Ligaska moduan arituko dira oraingoan ere eta maiatza alderako erabakiko da final laurdenak nortzuk jokatu dituzten.

Errugbikoak aurrera

Nazional mailako "B" multzoko partida guztiak jokatu ondoren, lehen postuan sailkatu da Ordizia Rugby Taldea. Denboraldi hasieran buruan zuten lehen erronka gauzatu dute, beraz, errugbikoek eta orain igoera faseari ekin beharko diote. Joaneko apirilaren 7an jokatu dute kanpoan eta itzulerakoa, aldiz, 14an. Arerioa ez da nolanahikoa izango, Valentziako Les Abeilles taldea hain zuzen. Iazko esperientzia gogoan izanda (lehenengoan huts) tentu handiz ibili beharko dute ordiziarrek. 8 talde arituko dira fase honetan lehian eta azkenik Ohorezko "B" Mailara bi talde besterik ez dira igoko.

Ur azpiko igeriketako emaitzak

Juanjo Iturralde (Tafalla) gizonetako eta Aloña Kotchetkova (Espainiako Selekzioa) emakumeetako izan ziren taula alemaniarra erabiltzaile martxoaren 2an Majori igerilekuan jokatuak Nazioarteko Hegats Igeriketako II. Openeko garaileak.



Saturdiko festa apirilaren 1ean



Urtero bezala, pazko bigarre-
nean, Saturdi auzoko festa
ospatuko da gurean.

11:30etan: Meza nagusia Sa-
turdiko Baselizan.

Mezaren ondoren, auzoko
emakume eta gizon zaharre-
nei opari bana emango zaie.
Auzoan jaiotako azken hau-
rriari ere oparia emango zaio.
Ondoren haurrentzat jokuak.
Eguerdian, Nerea Elustondo

eta Imanol Lazkano bertsola-
riak eta Jon Ansoregi eta La-
rrañaga trikitilarien saioa.

13:00etan: auzotarren arteko
Toka Txapelketa

14:30ean: bazkaria

Bazkalondoan Nerea Elus-
tondo eta Imanol Lazkano
bertsolarien saioa.

17:30ean: Herri kirolak: **Aiz-
koran:** Arrospide eta Azur-
mendi. Lana: Lau kanaerdi-
ko; hiru hirurogei ontzako eta

oindikoa bat. Arrospidek
Azurmendiri kanaerdiko ba-
ten aldea ematen dio. **Harri-
jasotzailearen saioa:** Izeta
harrijasotzaileak Saturdiko
Ernaitza harriarekin (147 kg)
bost minutuko tanda bakarre-
an Ostolazaren errekorra
hausteko sailakera.

Ondoren, trikitilariekin erro-
meria.

20:00etan: astelehenero egi-
ten den Kontzentrazioa.

Aberri Eguna martxoaren 31n

Zaldibiako Udalak datorren
igandea, hilak 31, Aberri
Eguna dela gogorarazi nahi
dizue herritarrei. Hala, eta
azken hiru urteotan Udalbil-
tzak egindako deialdiekin bat
eginez, Aberri Eguna ospatze
aldera ekitaldi bat egingo da
plazan eguerdiko 12:00etan.
Ohorezko agurra dantzatu
ondoren, Udalbiltzak igorri-
tako adierazpen instituziona-
la irakurriko dute udal orde-
kariak. Ekitaldia amaitzeko
hamaiketako batekin asebe-
teko dira barruak. Balkoietan
ikurrinak zintzilikatzeko deia
luzatzen du Udalak.

*Iñaki gurrutxaga
Saroï Jauregi*



Emakume langileen eguneko afaria

Azken lau zapabost urteotako
ohiturari jarraituz, giro ede-
rrean ospatu zuten emakume
ataundarrek joan den martxo-
aren 8a.

San Gregorioko Pelotazale
Elkartean antolatu afarian 35-
40 emakume bildu ziren be-
ren/gure eguna ospatzeko as-
moz.

“Bitxikeria” moduan
esan, gizonak omen direla
afaria prestatu eta zerbitza-
tzen dutenak, emakumeari,
urtean behin bada ere, karga
hori kenduz.

Antolatzaileetako batek
dioskunez, hasieran Bitorren-
en egiten omen zuten afaria,
baina zerbitzariak emaku-
mezkoak zirenez eta, egun

hau ospatzearen helburuari
kontrajartzen zitzaionez, Pe-
lotazale elkartearen egiteko
idea sortu omen zitzairen.

Baina betikoan gaude.
Izan ere urteak 365 egun ditu
eta ez ginateke konformatu
behar egun bakar bateko eki-
men motaokin.

Agurtzane Bikuña

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Otsailaren 9an irekiko dugu

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA



Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76 ABALTZISKETA

JOXI iturgintza
Jose Inazio Etxeberria Arriabarrena

GASA - BEROGAILUAK

☎ 943 884 387 Ibarguren baserria
☎ 676 178 488 **ZALDIBIA**

Loinatz txirrindulari taldeak antolatuta:

75. Loinatz klasikoa apirilaren 14an

Beasaingo Loinatz txirrindularitzako klasikoa 1926az geroztik urtero jokatu da (1937-38 urteetan izan ezik). Hau da estatu mailan jokatzeko den 2. klasikarik zaharrena. Aurtengoan apirilaren 14an lehiatuko dira txirrindulariak.

Goizeko 9,30etan hasita, Goierri eta Urolako errepideetan 165 kilometrotan 5 mendate igo ondoren, eguerdiko 1,42 inguruan iritsiko dira txirrindulariak Beasaingo Nafarroa Etorbideko helmugara. Larraitzetik 10:24 aldera pasako dira, Urkillagatik 11:22 aldera, Mandubiatik 12:04 aldera, Eizagatik 12:18 aldera eta Mandubiatik 13:18 aldera.

Lasterketa irabazten duenak aukera handia izango du profesional mailarako saltoa emateko. Izan ere, antolatzaileek azaldu dutenez, aurreko 74 urtetan izan diren irabazleetatik %98ak profesionaletarako bidea hartu zuen. Irabazleentzako zerrenda luzetik batzuk aipatzearen: 1964an Txomin Perurena, 1967 eta 1969an Xanti Lazkano, 1973an Joxe Nazabal, 1981ean Julian Gorospe, 1983an Pello Ruiz Cabestany, 1992an Abraham Olano, 1994an Aitor Osa eta 1996an Unai Osa.

Loinatz txirrindulari elkartearen ibilbide luzea

1963an sortu zen Loinatz Txirindu Elkartea. Ordurarte Beasain Kirol Elkarteko txirrindularitza saila zenak, bertatik atera eta bere bidea egitea erabaki zuen. Harrezkero bi zeregin izan ditu elkarteak: alde batetik maila ezberdineko lasterketak antolatzea, eta bestetik dituzten talde ezberdinetan txirrindularien trebakuntza. Honekin batera beti izan dute arbitro epaile taldea.

Lasterketen antolakuntza

Loinatzkoek urtero-urtero hainbat txirrindulari proba antolatzen dituzte. Ziklo-krosean 1964 eta 1966 urteetan Espainiako txapelketak antolatu zituzten eta 1966an honez gain munduko txapelkea ere antolatu zuten. 1975. urtean Espainiako itzuliko azken aurreko etapa bukatu zen Beasainen eta 1984-1985-1988 urteetan Euskadiko itzuliko etapak ere antolatu zituzten.

Ekitaldi bererzi hauek gain urtero-urtero hainbat lasterketa antolatu dituzte: 1926an hasita antolatzen den Loinatz klasikoa, 70. eta 80. hamarkadetan hainbat ziklo-kros lasterketa, 23 urtez azpikoentzat Loinatz klasikoa (52 edizio), jubenilen Beasain saria (21



Oraindik Beasain kirol elkarte txirrindularitza saila zenak 1961. urtean 'Gaseosas el As' taldea atera zuten. Argazkian, Ataungo San Gregorion, ondorengoak daude: (ezkeretik eskuinera) ezezaguna, Arsuaga, Villanueva, ezezaguna, Bidaurre, E. Aranburu, Irazoki, Zaldua, San Jose, Fernando San Jose, Ortiz de Ginea, Burutaran, Urkizar, Bujanda eta Lasa.

edizio), kadeteen Usurbe saria (19 edizio) eta eskolarteko probak (13 edizio).

Hainbat talde aurrera ateraz

50. hamarkadatik aurrera hainbat talde atera ditu aurrera Loinatz txirrindulari elkarteak, 1958-59 urteetan Caobania taldea, 1961ean Gaseosas el As taldea, 1980an Scania, ondoren Elektra, eta 1989az geroztik Iberdrola taldea. Haez gain Orbea mountain-bike taldea eta zikloturismo taldea ere bai.

Babesle berriak

GOIERRITARRAREN 216. zenbakian azaldu zen bezala, urte hasieran aurretik ezer esan gabe Iberdrolak txirrindularitza bebesteari utzi zion. Hori dela eta babesle berrien bila ibili dira Loinatzkoak. Txirrindulari gazteen lana Intersport-Urrutiak, Jelasak eta Ikolan-Lanaldik babestuko dute eta afizionatuen mailako taldearena oraindik zehazteko dago.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

ZINEA

GOIENIZ

Apirilak 4, 'Yi Yi',
21:00etan, Usurbe
Antzokian.

LEGORRETA

Apirilak 4, 'El planeta de los simios', Herri Zineman, 20:30ean.

Apirilak 11, 'Naufrago', Herri Zineman, 20:30ean.

Apirilak 18, 'Gente pez', Herri Zineman, 20:30ean.

hitzaldiak

LAZKAO:

Apirilak 15, 'Eske hau superguaya da! XXI. mendeko gazte hizkera', Kike Amonarriren eskutik, Ikastolako Batxilergo ikasleentzat, Ikastolan, 13:00etan.

SEGURA:

Apirilak 8, 'Lapurdiren aurkezpena', Kultur etxean, 19:30ean. Hizlaria: Mikel Epalza.

Apirilak 9, 'Turismo eta bere eraginak Lapurdin', Kultur etxean, 19:30ean. Hizlariak: Peio Olagarai eta Peio Etxeberria.

Apirilak 10, 'Abiadura handiko trenaren proiektua'. Kultur etxean, 19:30ean. Hizlariak: Jeronimo Prieto eta Mikel Albarez.

Apirilak 12, 'Herri minorizatuak Europan. Euskal Herria eta Kataluña'. Kultur etxean, 19:30ean. Hizlariak: Koldo Gorostiaga eta Miquel Mayo europarlamentariak.

bertsoak

GABIRIA:

Apirilak 6, XXXI. Bertsolari Gazteen Osinalde Sariketa, Osinalde elkarteak. 21:00etan afaria eta ondoren lehiaketa.

LAZKAO:

Apirilak 19, Bat-bateko bertso-saioa eta antzerkia bertsotan, Goierriko bertso-eskolakoan eskutik, 14:30ean, Ikastolan.

SEGURA:

Apirilak 11, Amets Arzallus eta Sustrai Kolina, Kultur etxean, 19:30ean. Ondoren, bertso-afaria, Elorri elkarteak.

ikusentzuneakoak

GABIRIA:

Apirilak 11, 'Munduari itzulua 17 urtetan belauntzian eta familian', Santiago Gonzalezek aurkezturik, Kultur etxean, 19:30ean.

Apirilak 12, Jose Ramon Agirre 'Marron'-en 'Mongolia, estepako taupadak', Kultur etxean, 20:00etan.

LAZKAO:

Apirilak 10, 'Pangea, bidaia kontinenteen ondora', J. Iztueta eta A. Izagirreren eskutik. Maizpide euskaltegian, 21:00etan.

Apirilak 11, 'Korea eta Txina, amets baten bidea', Anjel Cuerdoren eskutik, Maizpide euskaltegian, 21:00etan.

antzerkia

GABIRIA:

Apirilak 7, 'Garalderen Requiem' antzezlanak, Azpeitiko Lakrikun taldearen eskutik, elizako antzokian, 18:00etan.

LAZKAO:

Apirilak 17, Hika taldearen 'Arrautza deilikatuak', Maizpiden, 21:00etan.

ORDIZIA:

Apirilak 12, Gluglu taldearen 'Urak dakarrena gluglu', Herri Antzokian, 22:15ean.

musika

LAZKAO:

Apirilak 14, Donosti Ereski abesbatzaren kontzertua, Beneditarren komentuan, 12:00etan.

SEGURA:

Apirilak 12, Anje Duhalde, plazako karpan, 23:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Irailaren 30era arte, Ars Lig-nae erakusketa, Igartza jauregian.

Apirilaren 6ra arte, Mamen donostiarraren argazki erakusketa, Aterpe tabernan.

Apirilaren 12tik 21era, Jesus Zulueta lanak, Usurbe Antzokian.

LAZKAO:

Apirilaren 8tik 22ra, Dionisio Amundarain, artzantzatik komentura eta komentutik euskararen unibertsitatera', Kultur etxean.

ORDIZIA:

Apirilaren 15etik 30era, Juan Gorritiren 'Baserriko argia' eskultura erakusketa, Barrenan.

SEGURA:

Apirilaren 14ra arte, Juan Gorritiren 'Baserriko argia' eskultura erakusketa, Ardixarran.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Martxoak 30-31 : Jauregi
(Andra Mari kalea, 2 - Ordizia). 943 160949.

Apirilak 6-7: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Apirilak 13-14: Lournaga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

Etxebizitzak

salgai

➔ Itsasondan etxea salgai. 3 logela, egongela, bainugela, sukalde ekipatua. Berogailua dauka. Oso eguzkitsua. Mobleztatua. Ganbara eta bi autoentzako garaia ere baditu. 943882111.

➔ Donostian, Groseko geltokiaren ondoan, etxea salgai. 2 logela. 659729135. Arratsaldeko 5etatik 9etara deitu.

➔ Etxebizitza salgai Ikaztegietan. 127 m². Estreinatu gabea. Tren geltoki ondoan. Garajearekin. 607085145. 5etatik aurrera deitu.

➔ Goierrin txalet adosatua salgai. 150 m². Sukaldea jantzia, 2 logela, egongela, bainugela eta komuna, 2 autorentzako garaia, 250²ko lorategia. 30.500.000 pezetan. Mandio. 699936801.

➔ Ikaztegietan familia bakarreko etxea salgai. Sukaldea, egongela, 3 bainugela eta 3 logela. 50 m²ko garaia. 678240829.

konpartituak

➔ Pisukide bat bilatzen da Beasainen pisua konpartitzeko. 653735094.

➔ Madrilan ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914095390.

errentan

➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948539381.

Garajeak

errentan

➔ Bi garaje alokatzen dira Jose Lasa kaleko 5. zenbakian. Lur azpikoak. 943885574. Iluntzetan deitu.

salgai

➔ Zaldibian, Ostaturburu etxean, garaia salgai. Entreplantarekin eta urarekin. 943887827.

Ibilgailuak

salgai

➔ Rover 216, SS-W, salgai. Beti garajea egona. 94.000 km. Gurpilak, korreak eta beste zenbait atal berriak. Oso ondo zaindua. Merkea. 656415505.

➔ Kotxea salgai: Tata Safari todo terrenoa EX. Urtebete dauka. 943683552.

➔ Yamacha YZ motorra salgai. 80 cm³koa. Egoera onean. 943806502. Iluntzetan deitu. Joxean.

➔ Piaggio Typhoon motorra salgai. 125 cc. Urdina. 6.200 km. Ondo zaindua. 943086857.

➔ 50 c.c.ko Suzuki Katana markako motoa salgai. Bi urte ditu eta ondo zainduta dago. 649.14.28.35

➔ Honda CBR 600 motorra salgai. 92. urtekoa. Egoera onean. 636563841.

Animaliak

salgai

➔ 4 urteko pirenai behia, bere txekorrarekin, salgai. 943887827.

➔ Suitza arrazako behia salgai. Umea egiteko puntuan. 943683290.

opari

➔ Txakur polita opari, ezin zaintzeagatik: Siberian husky eta artzain txakurraren nahasketa. Begi bat urdina eta beste marroia. 609735132. Enrike.

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATEAK eta abar

✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnua.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnua.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN



EGUZKI

INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

T 943 88 94 82

BEASAIN

AMEBI



Sagardotegia

© 943 16 25 23

Zubierreka,9

LAZKAO

Bestelakoak

salgai

➔ Ordenagailuan ikus-
teko pelikula (div-x
formatoan), The Sim-
pons-eko 248 kapitulo
(12 cd), programak,
musika cd-ak eta Dre-
amcast-erako jokoak
saltzen ditut oso prezio
onean, (2,1 euro/cd).
Seriotasuna.
658751318.

➔ Umeentzako paseo-
ko aukia salgai,
Quinny markakoa. Erdi
prezioan, Egoera onean.
656722020.

➔ Errepideko txirrin-
dua salgai. 51 neurri-
koa. Manetekin. Ondo
zaindua. 50.000 pezeta /
300 euro. 943882955
(13:00etatik 15:00etara
edo 21:00etatik aurrera
deitu).

➔ Sutarako egurra sal-
gai, 2 metroan moztu-
ta. 943880905.

➔ Poliesterezko de-
posituak salgai. 2.500
litro ingurukoak. Sagar-
do edo antzekoentzat.
943801711.

➔ Bideo kamera sal-
gai. Ordubete baino gu-
txia erabilia. Berritan
130.000 pezeta balio
zuen; orain, 75.000.
660024835.

➔ Sutarako egurra sal-
gai. Haritza eta haritz
amerikarra. 0,03 euro
edo 5 pezeta kiloko.
943887827. Zaldibia.

➔ Karabana salgai.
Büstner 430. Oso egoe-
ra onean. Bi abantzee-
kin (udakoa eta negu-
koa). 21:00etatik aurre-
ra deitu. Mikel
(943887573).

Lana

eskaerak

➔ Neska euskalduna
behar da tabernan lan
egiteko. Ordizian. Espe-
rientziaduna.
605772623.

➔ Beasainen neska
euskalduna behar da
ume bat zaindu eta
etxeko lanak egiteko.
943880845.

➔ Neska euskalduna
behar da zerbitzari lane-
rako. 943655848.

➔ Pertsona euskaldu-
na behar da tabernan
astebukaeran lan egite-
ko. 943160205 -
943886577.

➔ Pertsona bat behar
da Ordizian irekitze-
ar dagoen elkarte batean
garbiketa lanak egiteko.
943087275.

eskaintzak

➔ Kamiolari autono-
moa tailerretan lan egi-
teko prest dago. 4.000
kilo arte. 943801711.

➔ Gauetan pertsona
nagusiei konpainia egi-
ten lan egingo nuke,
asistente moduan. Aina-
ra. 943883379.

➔ Neska euskalduna
eskaintzen da astean ze-
har egunean pare bat
ordu, garbiketa edo an-
tzeiko lanak egiteko.
619601111.

➔ Neska adiministrari
gaztea prest dago sal-
tzaile edo kamarera la-
na egiteko. 600323206.


Negozioa

salgai

➔ Jubilazioa dela eta,
Ordizian taxi plaza sal-
gai. 943 88 15 15.

Galdutako objektuak

➔ San Adriango bur-
dinezko zubi ondoan,
makil bat utzi nuen
ahaztuta. Lizarra egu-
rrezko makila da, barni-
zatua eta mantxa bel-
tzak ditu. Erbeta izena-
rekin grabatua dago.
630171944.



Iues rothers
BEASAIN



Olagi Sagardotegia
Eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
© 943 88 77 26 ALTZAGA



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
☎ 943 02 75 33 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN



KAFE TXIGORTZEN DUGU
Jonjo Kafeak
KAFFE eta TE denda
Santa Maria kalea 19
Tel: 943 88 12 80 ORDIZIA




Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA
Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



IKASTE AKADEMIA
Goierriko Akademia integrala
Interneten: Kontsultatu irakasleari
Beharrezko informazioa aurkitu
ikastekakademia@latinmail.com
http://usuarios.tripod.es/ikastek
Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120 BEASAIN

ESKOLA LAGUNTZA	IKASKETA ARAZOAK
✖ Gai eta maila guztiak	✖ Errendimendua ✖ Ohiturak, metodoak
✖ Lehen Hezkuntza	✖ Atentzioa ✖ Emozioen kontrola
✖ DBH, DBHO, Moduloak	
✖ Zikloak	

GOIERRIKO UNIBERTISTATEA	UNIBERTSITATE MAILA
✖ Marrazketa ✖ Matematika	✖ Enpresaritza
✖ Fisika ✖ Teknologia	✓ Kontabilitatea, kalkulua
	✓ Fakturazioa, estatistika
	✓ Matematika (finantzieroa...)



Segurako soldadu erromatarak, 1954an

Goiko lerroan, ezkerretik eskuinera: Luis Elorza, Eleuterio Ugalde, Luzio Imaz, Juan Ugalde, Inazio Aranburu eta Migel Arrondo.

Beheko lerroan: Roke Antonio Telleria, Raimundo Ormazabal, Lorenzo Ormazabal, Basilio Telleria, Juan M^a Aristimuño, Jose Etxeberria eta Martin Berasategi.

ARANBURU HARATEGIA

Nagusia, 34

☎ 943 80 10 14 - 943 80 01 41

SEGURA

ANTONKALE EDARITEGIA

SEGURA

SANTA BARBARA karrozategia

Juan Mari Oiarbide

Kale Nagusia ☎ 943 80 11 60

SEGURA



OTATZA SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere irekita
(asteaz zehar eguerditan enkarguz)

Apirila bukaera arte sagardotegia
Maiatzetik aurrera erretegi bezala irekita

☎ 943 80 17 57 ZERAIN

KALITATEKO
EUSKAL
OKELA

Bertako haragia
Gaztak
Etxeko arkumeak...

EROSLE GOIKO

Zurbano, 8 ☎ 943 80 03 26 SEGURA



frutas
amatriain

tel 943 80 11 77
Zurbano kalea 22, behea
20214 Segura

IMAZ Jatetxea

- ◆ Eguneroko bazkariak
- ◆ Karta

Kale Nagusia, 27

☎ 943 80 10 25 - 943 80 13 77

SEGURA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

Jardutera profesional luze baten ostean gure zentru berria eskeintzen dizugu, behar guztiak asetzeko erabat horniturik dagoena; elbarrituentzako guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi eta zure ongizatea lortzeko behar diren guztiak zaindu ditugularik. Teknologi aurreratuenak zure esku jarritz, gure lan talde espezializatuak norbanako tratamendu egokienaz landuko ditu zure beharrak, bai implantologi, estetika edota zirugi mailan.

Erabateko hortz klinika Integratua.

SMC

ERABATEKO

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT

HORTZ

ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN

KLINIKA

INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

INTEGRATUA



Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



o i n e t a k o a k

o s k a r b i

o i n e t a k o a k



Tel. 943 88 41 04
kale Nagusia 34 BEASAIN

Tel. 943 88 19 44
kale Nagusia 25 ORDIZIA